

# ni ez naiz hemengoa



barrenkale 11. ikastunitatea

3. maila

ikaslearena

## EGILEAK

Proiektuaren arduraduna: Juxto Egaña (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)  
Koordinatzaile didaktikoak: Begoña Martinez (HABEko teknikaria)  
Sabin Zabala (HABEko teknikaria)  
Partehartzaileak: Jose Luis Azpillaga (Debabe Udal Euskaltegia)  
Errealizazio didaktikoa: Felix Sainz (HABEko teknikaria)

HABE Erakundeak eskerrak ematen dizkio Debabe Udal Euskaltegiari materialgintza-proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duen borondateagatik.

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak: Josetxo Sastre eta Iñaki Gozalo

Gure esker ona ondoren aipatzen diren hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako.

Arbelbide, Xipri. Etorkin eta arrazismo. HABE: 270. zenb.  
Atzerako kontaketa. ELHUYAR 2000.eko urtarrila  
Bertatik Bertara. EITB  
Demografia. Ikusgela. EITB  
Egaña, Andoni. Nahi duzunean. Goizean Behin. Euskadi Irratia  
Galdestreet. EITB  
Izagirre, Koldo. Gauzetan. Itzaropena  
Mess, Ludger. Zer ekarriko digu XXI. mendeak? Administrazioa euskaraz. IVAP 27: 21. or.  
Ocio, Iban. Euskaldunak lur bat haratago. Euskaldunon Egunkaria 2002-04-10  
Otamendi, Jose Luis. Euri kontuak. Susa  
Rozas, Ixiar. Sartu, korrontea dabil. Erein  
Ruper Ordorika. So 'ik so'.  
Sorginen laratza. EITB  
Unzurrunzaga, Agustin. Etorkinak eta lan-merkatua. Euskaldunon Egunkaria 2002-05-12  
Urbieta, A. Nere sentimendua  
Uribe, Kirmen. Bar Puerto  
Zubizarreta, Patxi. Euria eta ozpina. Alberdania

# ni ez naiz hemengoa

barrenkale 11. ikastunitatea  
3. maila

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua

ikaslearena

## AURKIBIDEA

### 1. Sarrera

- |                               |   |
|-------------------------------|---|
| 1. Lan-egitasmoa              | 6 |
| 2. Ikastunitatearen ibilbidea | 7 |

### 2. Atazak

#### A. Multzoa

- |                                       |    |
|---------------------------------------|----|
| 1. Ataza: Nola datorkigu XXI. mendea? | 8  |
| 2. Ataza: Ni ez naiz hemengoa         | 18 |

#### B. Multzoa

- |                              |    |
|------------------------------|----|
| 3. Ataza: Demografia         | 23 |
| 4. Ataza: Ez daukat paperik! | 28 |

#### C. Multzoa

- |                       |    |
|-----------------------|----|
| 5. Ataza: Etxe aldera | 39 |
|-----------------------|----|

### 3. Eranskinak

- |                        |    |
|------------------------|----|
| 1. Testuak             | 42 |
| 2. Autoebaluazio-orria | 48 |

### 4. Material osagarriak

- |                                       |    |
|---------------------------------------|----|
| 1. Ataza: Nola datorkigu XXI. mendea? |    |
| 1. Euskaldunak Lur bat haratago       | 49 |
| 2. Ataza: Ni ez naiz hemengoa         |    |
| 2. Haizeak eraman zuena               | 54 |
| 3. Ataza: Demografia                  |    |
| 3. Atzerako kontaketa                 | 55 |
| 4. Ataza: Ez daukat paperik!          |    |
| 4. Egin nahi ez ditugun lanak         | 58 |

## 1. LAN-EGITASMOA


Ikastunitate honetan gaur egun denok kezkatzen gaituen arazo bat izango dugu hizpide: emigrazioa eta etorkinak. Izan ere, gizakiaren aspaldiko joera da jaioterria utzi eta bizimodu hobearen bila abiatzearena, baina gaur egun inoiz baino bortitzagoa da, batik bat Hirugarren Mundutik herrialde garatueterako emigrazioaren kariaz.

**A multzoan**, XXI. mendeak ekar liezagukeenaz mintzatuko gara: etorkinen etorreraz gain, gure gizartean eta bizimoduan antzemango ditugun aldaketak jorratuko ditugu. Gaiari buruzko geure ikuspegia ere emango dugu idatziz. Bestalde, aditu baten iritzia irakurrita, XXI. mendeko euskaldunaren erretratu robota egiten ahaleginduko gara eta, horrez gain, idazlanari kohesioa emateko erakusleen erabileraz jardungo dugu. Azkenik, Andoni Egañaren hausnarketaren harira, norberaren eta klaseko gainerako ikaskideen jatorriaz, bertakoa izateaz eta etorkina izateaz berba egingo dugu.

**B multzoan**, demografiaz hitz egingo dugu: zer den eta zertarako balio duen aztertuko dugu. Hiztegia lantzeko aukera emango digu horrek. Ondoren, etorkinek dituzten arazoetan murgilduko gara Agustin Unzurrunzagaren eskutik: paperen kontua eta integrazio arazoak izango ditugu aztergai. Azkenik, horrelako pertsona baten historia idatziz asmatzen ahaleginduko gara.

**C multzoan**, gai honek literaturan izan duen islari erreparatuko diogu. Literatur zati batzuek iradokitako ideia eta sentimenduak oinarri, gaiaren gaineko eztabaidari irekiko diogu bidea.

## 2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA



# 1. ATAZA: NOLA DATORKIGU XXI. MENDEA?

Urte berria edo sasoi berria hasten dugunean, ohikoa izaten da aurreikuspenak egitea eta aro berria nola datorkigun edo zer ote dakarkigun galdetzea. XXI. mendea hasi berri dugun honetan, horixe da ondorengo komiki binetako irakasleak euskaltegiko ikasleei galdetu diena.

1

- Zer erantzun ote dio ikasle horrek hain harrituta lagatzeko? Pentsatu ikaslearen erantzun posibleekin.



- Modu batean edo bestean iritsita ere, argi dago gero eta etorkin gehiagori egin beharko diogula lekua gure gizartean hemendik aurrera. Horrez gainera, beste aldaketa asko ere izango dira gure gizartean sartu berri garen mende honetan. Esaterako, hona hemen zenbait adituk Zer ekarriko digu XXI. mendeak? galderari erantzunez egindako aurreikuspenen zati batzuk. Irakurri azkar samar eta lotu aurreikuspen bakoitza dagokion adituari.



### Iñaki Irazabalbeitia

#### Zientzi dibulгатzailea

A

“Gaur egun noizean behin etorkin batzuk iristen dira gurera, pateretan, polizoi moduan...; baina hemendik aurrera etorkin gehiago etorriko da, beren herrialdeetako bizi baldintzak ezin dituztelako jasan eta gure artean banatzen dugun pastelaren puska baten eske.”  
 “Gaur egun oraindik oso normala da leku batean jaio eta bizitza guztia bertan egitea. Hemendik aurrera, ordea, gutxiagotan gertatuko da hala. Bizitzan toki batetik bestera mugituko gara, derrigorrez: ikasteko, lana bilatzeko, lan egiteko...”



### Nestor Basterretxea

#### Eskultorea

B

“Hogei bat urteren buruan, planeta gorria urratuko dute gizakion botek... Eguzki sistema goitik behera miatuko dugu, unibertsoaz gehiago jakingo dugu eta, apika, beste batzuen berri ere izan genezake.”



### Ludger Mees:

#### EHUko historia irakaslea

C

“...,makinek, kalkuluak berehala egiteko duten ahalmen izugarri eta guzti, ez dute inoiz ordezkaturiko artista baten marrazkiaren pultso intimoa, bere zalantza eta kontraesanen erritmoa, edo sormenaren ezusteko xehetasun pertsonala. Makinek ezin dute sortu beren kabuz Picassoren Guernica. Beraz, datorren mendean izango dira itzal argitsu batzuk bertan babestu eta robot dotoreak bihurtzea saihesteko”.

- Zeri erreparatu diozu lotura horiek egiteko? Zein hitz edo esaldik lagundu dizu?

- Irakurri orain beste zenbait lagunek egindako aurreikuspenak eta jarri alboan zure iritzia, ados zauden edo ez adieraziz.

HAINBAT IRITZI	Zure iritzia
<p>1. Ez dut uste gure helburua gizonen parean egotea izan behar duenik, gizonak ez garelako, baina eskubideei dagokienez, <u>zalantzarik gabe</u>, emakumeok gutxinaka-gutxinaka berdintasuna lortuko dugu.</p>	<p>.....</p>
<p>2. Euskal Herrian oso parrandazaleak gara, kalezaleak, tabernazaleak. Beraz, oso <u>zaila ikusten dut hori aldatzea</u>. Hori guztia oso errotuta dago gure gizartean eta horrela jarraituko <u>dugulakoan nago</u>.</p>	<p>.....</p>
<p>3. Ez dakit Unibertsoko beste toki batzuetan bizitzeko aukerarik <u>egongo den ala ez</u>, baina <u>ziur nago</u> oportretan ilargira joateko aukera izango dugula.</p>	<p>.....</p>
<p>4. Internet bidez irakur daitezkeen egunkariei buruzko <u>iritzi ona dut</u>, baina, <u>nire ustez</u>, inoiz ez dituzte ordezkatuko konbentzionalak.</p>	<p>.....</p>
<p>5. Etxetik irten gabe ikasterik izango da. Dena dela, <u>nire ustez</u>, fakultateak ez dira inoiz desagertuko; <u>ezinezkoa iruditzen zait</u> karrera bateko ikasgai guztiak Internet bidez ematea. Zenbait ikasgaitan beharrezkoa da irakaslea zure alboan egotea.</p>	<p>.....</p>
<p>6. Emakumea haurdun gelditzean, gurasoek erabakiko dute, <u>seguru asko</u>, euren seme-alabak nolakoak izango diren. Ez fisikoki bakarrik, haurren nortasuna erabakitza ere helduko gara.</p>	<p>.....</p>
<p>7. Etorkizunean merkataritza zentro izugarriak eraikiko dituzte, gaurkoak baino handiagoak, taberna askorekin, zinema aretoekin... Herri txikiak bezalakoak izango dira, eta, <u>tamalez</u>, gazteek gunehorietan emango dituzte asteburuak.</p>	<p>.....</p>
<p>8. Herri guztiak pixkanaka-pixkanaka elkartu egingo dira <u>ezinbestean</u> eta hiri handi bihurtuko dira. Gure etxebizitzak gaur egun amerikarrek dituztenak bezalakoak imajinatzen ditut: txalet txikiak, bakoitza bere lorategi txikiarekin.</p>	<p>.....</p>
<p>9. Beste herri eta estatuetan ez dakit zer gertatuko den, baina Euskal Herrian beti bezala jaten jarraituko dugu, <u>zorionez</u>. <u>Egia da</u> gazteok gero eta hanburgesa gehiago jaten <u>ditugula</u>, baina ohiko jakiak ez dira desagertuko.</p>	<p>.....</p>
<p>10. Euskal Herriko gizarteak, <u>halabeharrez</u>, bestelako itxura izango du: Europako hiri handien antzekoa; zaborrak Nigeriako etorkinek jasoko dituzte; itsaso gogorrera perutar txiki bezain langileak joango dira eta magrebiarrek garbituko dituzte gure kaleak.</p>	<p>.....</p>

- Azaldu zeure iritzia taldekideei.

- Itzul zaitetz iritzien koadrora eta saiatu hiztun bakoitzaren jarrera bereizten: **ziurtasuna** (egia/faltsua), **probabilitatea** (posible/ezin/hipotetikoa), **beharra** (derrigortasuna/ala ez), **balorazioa** (ona/txarra, onuragarria/kaltegarria, nahi/nahi ez). Horretarako erreparatu azpimarratutako hitzei eta sailkatu hitz edo esamolde horiek ondorengo koadroan, islatzen duten jarreraren arabera. Kontuan hartu batzuetan hitz berak jarrera bat baino gehiago ere adieraz dezakeela.

	ZIURTASUNA	PROBABILITATEA	BEHARRA	BALORAZIOA
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				
6.				
7.				
8.				
9.				
10.				

## 2

- Erreparatu orain zeure buruari eta pentsatu nolako izango den zure bizitza urte batzuk barru, nolako gizartea ezagutuko duzun, zertan aldatuko den zure lan egiteko edo ikasteko modua, harremanak... Aldaketa horietako batzuk derrigorrean edo ezinbestean gertatu beharrekoak izango dira; beste batzuk, ordea, agian gerta litezkeenak.





## 3

Zer ekarriko digu XXI. mendeak? galderari Ludger Meesek emandako erantzun osoa<sup>1</sup> irakurriko duzu. Horretan, Ludgerrek XXI. menderako aurreikusten dituen zenbait arazo aipatuko ditu eta, gainera, bere jarrera azalduko du horietako batzuen aurrean.

- Irakurri zati horiek eta saiatu ulertzen eta hurrengo orrialdeko testuan koherentziaz txertatzen.

**A** Hori horrela, —Euskal Herrian bizi garenontzako garrantzitsua—, identitateen bilakaera gertatuko da etorkizunean. Ez bagara leku bakar batean bizi, jende askorekin harremana badugu eta hainbat hizkuntza hitz egin behar baditugu, horrek ondorioak izango ditu identitatean. Identitatea anitzagoa izango da aurrerantzean, osagai gehiago izango ditu. Horrek arrisku bat du: badakigu ezin garela bizi identitate jakin bat eduki gabe, geurea sentitzen dugun zerbait, berezko kultura gabe azken finean; baina nola babestuko dugu geure identitatea kanpoko eraginei uko egin gabe?

**B** Komunismoa eta Sobiet Batasuna bertan behera geratu zirenean, liburu garrantzitsu bat kaleratu zen eta liburuaren inguruan filosofia bat ere garatu zen zera esaten zuena: “Historiaren bukaera da, hemendik aurrera egia bakarra dago, kapitalismoaren egia eta logika, eta ez dago beste alternatibarik”.

**C** Erronka handia da etorkizunerako. Geurea sentitzen dugun identitatea babestu nahi badugu, ezin diegu atea itxi kanpotik datozen eraginei; alderantziz, kanpotik datozen gauza onak aprobetxatu behar ditugu gure mesederako. Horrek ez du esan nahi gure nortasunari uko egin behar diogunik, baina beti ere ateari ireki behar ditugu eta kanpora atera; inolaz ere ez, ateari itxi eta geurea bakarrik defendatu.

**D** Arazo horietako bat, jakina, hazkuntza demografikoa da, hirugarren mundukoa batez ere. Horrekin batera, baita pobrezia ere. Gaur egun ez dugu demografiaren arazoa zuzenean jasaten, iruditzen zaigu oso urrun dagoela, eta ondo bizitzen jarraitzen dugun bitartean, gainontzekoak hor konpon.

**E** Hori abiapuntutzat harturik, nire erantzuna ezezkoa da. Izan ere, historia ez da bukatu, fase berri batean sartu da mende berri honetan, eta arazo latz eta kezagarri batzuk aurreikusi daitezke XXI. mendeari begira.



**F** Horrekin lotuta, datorren menderako bigarren arazo latz bat ingurumenaren babesa eta sustapena da. Pobrezia konpondu nahi badugu, Hirugarren Munduari lagundu nahi badiogu, zein garapen sistema edo tresna bultzatu behar dugu? Gure kapitalismo industrialak? Zalantza handiak ditut, gure sistemak gure aberastasuna ahalbideratu badu ere, ingurumena suntsitu baitu.

<sup>1</sup> Ludger Mess. Zer ekarriko digu XXI. mendeak? Administrazioa euskaraz. IVAP 27: 21. or.

## Zer ekarriko digu XXI. mendeak?

Ludger Mees

EHUko Historia irakaslea

1 ...

2 ...

3 ...

Baina datorren mendean askoz ere gertuago biziko dugu arazo hori, batez ere migrazioarena. Gaur egun noizean behin etorkin batzuk iristen dira gurera, pateretan, polizoi moduan...; baina hemendik aurrera etorkin gehiago etorriko da, beren herrialdeetako bizi baldintzak ezin dituztelako jasan eta gure artean banatzen dugun pastelaren puska baten eske. Ez dira afrikarrak edo asiarrak bakarrik etorriko, baita Europako Ekialdeko jendea ere.

4 ...

Eta nolakoa izango da XXI. mendeko mundua? Askoz ere txikiagoa, hau da, muga gutxiago izango ditu. Gaur egun oraindik oso normala da leku batean jaio eta bitza gutzia bertan egitea. Hemendik aurrera, ordea, gutxiagotan gertatuko da hala. Bizitzan toki batetik bestera mugituko gara, derrigo - rrez: ikasteko, lana bilatzeko, lan egiteko... Ondorioz, orain baino harreman gehiago izango ditugu beste pertsona batzuekin.

5 ...

6 ...

- Alderatu zure aldamenekoarekin egindako lana eta komentatu labur-labur zeri erreparatu diozuen paragrafoak ordenatzeko. Ondoren, zuzendu talde osoarekin batera.



- Taldeka jarrita, erantzun galdera hauei:

- Idazleak hazkuntza demografiari lotutako arazoez dihardu soil-soilik ala beste batzuk ere aipatzen ditu? Zein?
- Idazleak arazo guztien aurrean hartzen du nolabaiteko jarrera ala arazo batzuen aurrean bakarrik? Identifikatu idazlearen jarrerak.

Ludgerren iritziz, gure identitatea anitzagoa izango da etorkizunean: osagai gehiago izango ditu. Haren ustez, kanpotik datozen gauza onak aprobetxatu behar ditugu geure mesederako. Nola irudikatzen dituzu etorkizuneko euskaldunak? Zein izango dira euskaldunaren identitatearen osagaiak?

- Saiatu XXI. mendeko euskaldunaren erretratu-robota egiten. Aukeratu idazkari bat oharrak hartzeko eta gero taldekideei zuen artean hitz egindakoa laburtzeko.

Hizkuntza:

Erljioa eta sinesteak:

Itxura fisikoa:

Janzkera:


Izaera:

Musika, dantza...:

Lana:

Aisialdia (bidaiak...):

...



- Esan bezala, labur antzean, zuetako batek gainerako ikasleei taldean hitz egindakoaren berri emango die ahoz. Azalpena ondorengo eskemari jarraituz molda dezakezue:

**Gure ustez**, XXI. mendeko euskaldunak bi hizkuntza baino gehiago ezagutu eta erabiliko ditu ezinbestean eta, kalean behintzat, orain baino arruntagoa izango da atzerriko hizkuntzak entzutea.

Erljioari **dagokionez...**

**Bestetik...**

**Azkenik...**

- Hartu berriro Ludger Meesen artikulua eta begiratu nola erabiltzen dituen erakusleak (hau-hori-hura/ hauek-horiek-haiek) testuko ideiak eta esaldiak lotzeko. Kohesio mekanismo horiek testuan lehenago aipatutako hitz edo ideia batzuei egiten diete erreferentzia.

Erakuslea	Erreferentzia egiten dion hitza edo diskurtso-zatia
Hori abiapuntutzat harturik,	
Arazo horietako bat	
Horrekin batera	
Arazo hori	
Horrekin lotuta	
Hori horrela	
Horrek	
Horrek	
Horrek	

Konturatuko zinetenez, gehienetan bigarren graduako erakusleak (hori, horiek, horrekin, horietako...) erabiltzen ditu Ludgerrek bere testuan. Besterik erabil liteke? Zertarako erabiltzen dira lehen graduakoak (hau eta hauek)? Eta hirugarren graduakoak (hura, haiek)?

- Irakurri ondorengo adibideak eta ikusi nola erabiltzen diren erakusleak.

- Artista hauek erakutsiko dituzte beren lanak Baionan: Jauregi...
- Lehenago faktore batzuk aipatu ditugu. Faktore horiexek dira hemen aipatu nahi ditugunak.
- Hondamendian 23 lagunek galdu zuten bizia. Haietako bat ez dute aurkitu oraindik ere, Antonia Herrero emakume adindua hain zuzen ere.
- Mikeli esan zioten, eta hark gero niri esan zidan.

- Goiko adibideei jarraiki, aukeratu erantzun egokiena.

- Erakusleak ondoren datorren zerbait seinalatzen duenean, lehen /bigarren / hirugarren gradukoa erabiltzen da eta katafora deitzen zaio.
- Erakusleak, izenarekin batera, testuan aurretik azaldutako zerbait seinalatzen duenean, lehen /bigarren/ hirugarren gradukoa dagokio berez.
- Erakusle batek izena ordezkatzeko duenean, lehen/ bigarren/ hirugarren gradukoa da lehen aukera.

## 2. ATAZA: NI EZ NAIZ HEMENGOA

Aurreko atazan Ludger-ek zioen moduan, badirudi gero eta harreman gehiago izango dugula munduko hainbat jenderekin, gero eta etorkin gehiago izango direla gure gizartean eta mestizajea ere handiagoa izango dela. Ludger bera ere Alemaniakoa dugu. Hona etorri zenean, euskara ikasi zuen eta orain hemen bizi da, bertakotuta. Euskalduna ala alemaniarra da? Biak? Bertakoa ala kanpoko?

1

• Komentatu ikaskideekin ondoko galderak:


- Zer da euskalduna izatea?
- Zer da bertakoa izatea?
- Kanpotarra izan al daiteke euskalduna?



- Egia esan, hainbat kontzepturen esanahia argitzea ez da batere erraza. Ondorengo bideoan<sup>2</sup> Euskal Telebistan kazetari lanetan jardun izan duen Kadim Fall senegaldarrari kalean jendeari galdezka zebilela gertatutakoa ikusi ahal izango duzu. Ikusi bideoa eta erantzun galdera hauetara:

- Zer da euskalduna izatea agure zaharraren ustez?
- Zer da euskalduna izatea Kadimen ustez?

- Andoni Egaña Euskadi Irratian egindako iruzkinean<sup>3</sup> etorkinak, bertakoa izatea eta bertakoa egitea edo bertakotzea izango ditu hizpide. Entzun eta ahalegindu ondorengo kontzeptuak nola lotzen dituen ulertzen. Entzuten duzun bitartean, lotu kontzeptuak geuzien bidez.



Etorkinaren arazoak

Etorkina

Bertakoa izatea

Bertsolariak

Bertako egiten saiatzeko baldintza

Bertako egin daitezkeen saiatzeko baldintza

Eguzkia

Hobetuxeago bizi nahia

Inguru latz bat menperatzeko premia

Edukazioa

Bertakotzea, bertako sentitzeko aukera

Gezurra

- Zein kontzeptu-bikotek laburbiltzen du ondoen Andoniren hausnarketaren muina, zure ustez?

<sup>2</sup> Galdestreet. EITB

<sup>3</sup> Andoni Egaña. Nahi duzunean. Goizean Behin. Euskadi Irratia

2

Iruzkineko pasarte batean Andonik honela dio: “Gure aitona Arroa errekatik joan zen Zarautza. Nik alaba bat badut gasteiztarra”. Eta zu? Nongoa zara zu? Bizi zaren herrikoa bertakoa al zara? Ala etorkina zaitugu? Eta gurasoak? Seme-alabak? Eta zure ikaskideenak?”

- Hirunaka jarrita, bete itzazue taulako hutsuneak: bakoitzaren jaioterria.

Zureak	A ikaskidearenak	B ikaskidearenak
Aitona:	Aitona:	Aitona:
Amona:	Amona:	Amona:
Aita:	Aita:	Aita:
Ama:	Ama:	Ama:
Zu zeu:	Ikaskidea:	Ikaskidea:
Seme-alabak:	Seme-alabak:	Seme-alabak:
-	-	-
-	-	-

- Zein ondoriotara iritsi zarete? Komentatu ondorioak talde osoaren aurrean.
- Berrito ere entzungo duzue Andoni Egañaren azalpena, oraingoan transkripzioa aurrean duzuela. Transkripzioan zati luzeak falta dira, zuek osatu beharrekoak hain zuzen. Bosnaka jarrita, bakoitza zati bat berreraikitzen saiatuko zarete; gero, zuen zatien berri elkarriz emanez pasarte osoa berreraikiko duzue. Tira, bada, entzun eta Andonik erabiltzen dituen hitzak, testu zatiak, konparaketak gogoan hartzen saiatu.



Tira ba, nahi dudanean baldin bada, izan dadila nahi dudan bezala. Eta koplén modura Xabier Leteren esaldi batekin nahi nuke hasi. Gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia kantatzen ikasi genuen gaztetan. Ez dut oso ongi ulertzen genuenik uste, laztasunaren handia zenbatekoa izan zitekeen behintzat ez. San Simon eta San Juda ere kantatzen genuen eta nik behintzat eremu latz hitz bakartzat hartzen nuen: latza zer zen banekien baina eremua zer zen ez.



## A

Etorkinak zergatik dira etorkin? Ba, arrazoi pilaketa bategatik: askotan \_\_\_\_\_; beste askotan, menperagaitzak menpean hartu dituzten militarrek edo politikariak direlako, edota \_\_\_\_\_. Baina, \_\_\_\_\_.

## B

Etorkinak eta \_\_\_\_\_. Konturatu al zarete erabat kontrakoak direla? Eguzkiak urrutira begiratzean beroa eta atsedena ematen du. Hurbilera \_\_\_\_\_.

Etorkinekin justu beste aldera gertatzen da: \_\_\_\_\_, baina, bertatik bertara, lurrian arrastaka jertseak saldu nahian dabilen boliviarrak edo lepotik zintzilik kaxa datorren beltza azaltzen zaigunean, adarra jotzeko balio digute. Eta edozein izkinetan topa genezakeen ilehori letoniarrek beste zerbait jotzeko.

## C

Ez gara konturatzen \_\_\_\_\_, inongo hori bertakoaren sinonimotzat hartzen badugu behintzat. Denok gehiago dugula \_\_\_\_\_ aitona Arroa errekatik joan zen Zarautza. Nik alaba bat badut gasteiztarra. Bertako-bertako-bertakoaren bila \_\_\_\_\_ ez arraza, ez tasuna; topatuko genuke gezurra, \_\_\_\_\_.

## D

Bertsolariok pixka bat badakigu \_\_\_\_\_. Gure ofizioak zerbait eder badu, horixe du: \_\_\_\_\_. Baina txanponaren beste aldea ere pozgarria izango da: kanpokoari, arrotzari ateak zabaltzeko eta leku egitea.

## E

Bertako egiten saiatzeko, \_\_\_\_\_: inguru latz bat menperatzeko premia. Besteak bertako egin daitezkeen saiatzeko, \_\_\_\_\_. Ez dut uste \_\_\_\_\_, baina Espainiako Gobernuak \_\_\_\_\_ eta argia ere...



- Orain, saiatu falta diren zatiak ahalik eta modurik egokienean testuan txertatzen.
- Bosnaka jarrita, eman zure ikaskideei idatzitakoekin berri eta osatu falta zaizkizun zatiak.
- Azkenik, irakurri transkripzioa eta erreparatu aldeei.

### 3. ATAZA: DEMOGRAFIA

Aurreko artikuluan irakurri dugunez, XXI. mendeko arazo nagusietako bat hazkuntza demografikoa izango da eta gorabehera demografikoez itzelezko garrantzia izango dute. Demografiak gehiago jakiteko, erreportaje bat ikusiko dugu: demografia zer den eta zertarako balio duen azaltzeaz gain, hainbat datu eman eta datozen urteetarako zenbait aurreikuspen egingo dizkigute.



#### 1

- Demografiak hitz egitean, gure burura hainbat hitz datoz segituan; esaterako: jaiotzak, heriotzak... Ondorengo zerrendan demografiarekin zerikusia duten zenbait hitz eta hitz-kate dituzu: ia denak azalduko dira gero ikusiko duzun erreportajearen. Irakurri eta ezagutzen ez dituzunak galdetu ikaskideei.

Bikoiztu	Biztanleriaren gorabeherak
Aurreikusi	Erregistro zibila
Aurreikuspenak	Populazio-aurreikuspenak
Eremu geografikoa	Gizartearen egitura
Giza biztanleria	Adin-egitura
Jaiotza-tasa	Pentsioen banaketa
Heriotza-tasa	Osasun-sistemaren kudeaketa
Migrazioak	Hezkuntzaren antolaketa
Biztanle-kopurua	Egoera zibila
Gorakada	Berezko ernalkuntza
Azterketak	Zuzendutako ernalkuntza
Ernalkuntza-tasa	Antisorgailua
Antisorgailuak	Berritze-maila edo ordezkatzeko-maila
Faktore eragileak	Bizi-itzaropena
Giza mugimenduak	Herralde garatua
Agiri estatistikoak	Garapen ekonomikoa
Zentsuak edo erroldak	Hiriguneak
Zenbatu	

- Hitz horietako batzuk demografiaren dihardugunean azalduko dira batik bat: batzuk, espezifikokoak dira, arlo jakin horretakoak; beste batzuk, ordea, orokorragoak dira, beste arlo batzuetan ere agertuko zaizkigunak (ekonomian, geografian...). Egingo al zenituzke bi multzoak?

Demografiari buruzko  
hiztegi espezifikoak

Hiztegi orokorragoa



- Orain ikusiko duzun bideo-pasartean<sup>4</sup> lehen ikusitako hitzekin batera irudi jasa handia egingo dute. Hemen dituzu, ezkerreko zutabean multzoka jarrita, erreportajearen esaten diren hainbat hitz eta hitz-segida. Bosnaka jarrita, hartu taulako ezkerreko zutabearen agertzen diren bost multzo horietako bana eta saiatu erreportajearen hitz horiei loturik agertzen diren irudiak gogoan hartzen. Zatia bukatutakoan, hitz gutxitan adierazi irudietan agertutakoa erdiko zutabearen, adibideetan bezala.

Erreportajearen hitz eta hitz kateak	Erreportajearen irudiak	Erreportajearen ideia nagusiak
Demografia Bikoteak eta familiak Heriotza-tasak Ezkontzak Migrazioak	Hainbat pertsonaren aurpegiak	
Azterketa demografikoak Zentsuak edo erroldak Datuak ondo zenbatu Biztanleriaren gorabeherak Erregistro zibila	Hirietako kaleak jendez eta autoz gainezka	
Adin-egitura Pentsioen banaketa Hezkuntzaren antolaketa Sexu-taldeak eta adin-taldeak Egoera zibila	Gazteak kazetariari hizketan, haurrak, eta zahar batzuk	
Jaiotza-tasa Ernalkuntza-tasa Berritze-maila Bizi-itxaropena Migrazioak	Ume txikiak beren amen altzoan	
Biztanleriaren gorakada Garapen ekonomikoak Ekonomiaren oinarrizko legea Hiriguneak Emigrazioa	Grafiko batean populazioaren bilakaera eta aurreikuspenak	

<sup>4</sup>Demografia. Ikusgela. EITB



- Komentatu denon artean gogoratu dituzuen irudiak.
- Kokatu ondorengo ideia nagusiak eskuineko zutabeen, dagokien lekuan.

- A. Hemendik 50 urtera 10.000 milioi lagun izango dira munduan. Hirigune erraldoiak sortuko dira eta Hirugarren mundutik herrialde industrializatuetera emigrazio handiak izango dira.
- B. Demografiaren bitartez etorkizuneko biztanleria nolakoa izango den ezagutzen dugu: adin egitura, sexu egitura... eta horrela gizartean izango diren beharrak aurreikus ditzakegu
- C. Jaiotzak, heriotzak eta migrazioak dira fenomeno demografiko nagusiak. Berezko ernalkuntzari jarri zaizkion mugak direla eta, asko jaitsi da jaiotza-tasa gizarte garatuetan. Bestalde, azken hamarkadetako aurrerapenek eraginda, asko jaitsi da heriotza-tasa herrialde garatuetan eta bizi-itzaropena, berriz, luzatu egin da. Azkenik, migrazioak dira gaur egungo Lurreko populazioaren banaketaren erantzule nagusiak.
- D. Demografiak eremu geografiko jakin bateko nahiz mundu zabaleko giza biztanleriaren gorabeherak hainbat ikuspegitatik (geografia, adina, sexua...) aztertzen ditu.
- E. Azterketa demografikoak agiri estatistiko ofizialetan (zentsuak edo erroldak..) oinarri hartuta egiten dira.

Indiako autobusen atzeko aldean ipinitako kartel horietan, bi ume baino gehiago ez ekartzeko gomendatzen zitzairen bikoteei 90eko hamarkadan.



Erreportajeaz agertu zaizkigun hitzen artean badira maiz erabiltzen ditugun eta oso emankorrak diren hitz elkartuak. Hitz elkartu horietan bigarren hitzak dira (tasa, maila...) zertaz ari garen esaten digutenak eta lehenengoak (jaiotza, berritze...), berriz, bigarrenaren esanahia mugatu, zehaztu egiten dutenak.



- Jaiotza-tasa
- Heriotza-tasa
- Ernalkuntza-tasa
- Ordezkatze-maila
- Berritze-maila
- Biztanle-kopurua
- Osasun-sistema
- Bizi-itxaropena
- Giza mugimenduak
- Populazio-aurreikuspenak
- Adin-egitura
- Gizarte-ezaugarriak
- Gizarte eta ekonomia-faktoreak

Ortografiari dagokionez, honako arauak bete behar dira.



- Horrelako hitz elkartuak marratxoaz loturik edo bereiz idatz daitezke: osasun sistema (osasun-sistema).
- Lehen osagaiak -a itsatsia duten hitzak badira, eutsi egingo diote normalean, eta marratxoaz edo bereiz idatz daitezke : jaiotza tasa (jaiotza-tasa)
- Hala ere, zenbait kasutan -a itsatsia galdu egin dezakete: -ia amaiera duten hitzak direnean (biologia, jakinduria...) edo lehen osagaia eliza, burdina, hizkuntza, kultura, natura edo literatura direnean. Kasu hauetan bi aukera ditugu: -a itsatsia galduz gero, bereiz idatziko dira (jakinduri maila, kultur maila) eta -a itsatsiari eutsiz gero, marratxoaz loturik (jakinduria-maila, kultura-maila).

- Bigarren hitz horiek hartuta, idatziko al zenituzke aurrekoen antzeko beste hitz elkartu batzuk?

Tasa: .....

Maila: .....

Kopurua: .....

Sistema: .....

Itxaropena: .....

Mugimenduak: .....

Aurreikuspenak edo iragarpenak: .....

Egitura: .....

Ezaugarriak: .....

Faktoreak: .....

## 4. ATAZA: EZ DAUKAT PAPERIK!

Bateko paperak, besteko gizarte-ohiturak, etorkinek era askotako arazoei egin behar izaten diete aurre beste lurralde batera iristeko. Gero, bertako gizartean bizi, lan egin eta integratzea ez da samurra, batez ere Hirugarren Mundukoek.

1

- Ezagutzen al duzu kasurik? Nola iritsi dira hona? Nola egin dute beren egoera erregularizatzeko? Zer egiten dute hemen bizi eta lan egiteko paperak lortzeko?



- Irakur ezazu Agustin Unzurrunzagak, Gipuzkoako SOS Arrazakeriako kideak, Egunkarian idatzitako “Etorkinak eta lan-merkatua” artikulua pasarte eta bete hutsuneak testuaren ondoren ageri diren hitzekin.



“Etorkina ez da langile normal bat. Ez da langile libre bat, edozein \_\_\_\_\_1\_\_\_\_\_ -tan jardun dezakeena edo lekuz alda daitekeena. Etorkina, bertako langileak ez bezala \_\_\_\_\_2\_\_\_\_\_ -ren menpe dago, eta lege horrek bere lanarekiko erlazio osoa baldintzatzen du, ere gogor batean eta denbora luzean zehar.

Lehenengo eta behin, langile etorkinak ez du lanean jarduteko eskubiderik, nahiz eta \_\_\_\_\_3\_\_\_\_\_ eduki, nahiz eta merkatuak lana eskaini. Estatuak onartu behar dio eskubide hori. Estatuak da lanerako baimentzen duena eta, baimentzen duen bezalaxe, baimena kentzen diezaiokeena. Eskubide hori \_\_\_\_\_4\_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_5\_\_\_\_\_ baten bitartez gauzatzen da. Atzerritarren Legea \_\_\_\_\_6\_\_\_\_\_ -n oinarritzen da, bai, Le Pen jaunak aldarrikatzen duen printzipio berean.”

- Lehentasun nazionalaren printzipioa
- Lan eskaintza tinko bat
- Lan-baimen
- Erresidentzia-baimen
- Atzerritarren Legea
- lanbide



- Legearen ikuspegitik bi modu daude etorkinak bere egoera erregularizatzeko: bata, erregimen orokorra deritzona (honen barruan ere bi prozedura daude) eta, bestea, erregularizazio bereziak. Entzun ezazu Agustin Unzurrunzagarekin egindako elkarrizketa (lehen zatia) eta saiatu jasotzen nolako arazoak izaten dituzten hona etorri nahi duten etorkinek eta zein pauso eman behar dituzten euren egoera legal bihurtzeko.

### ERREGIMEN OROKORRA

#### Lehen prozedura

- Hemengo enpresa batek edo nagusi batek lanpostu bat dauka eta etorkin bat kontratatu nahi du
- Etorkina bere jaioterrian dago
- .....
- .....
- .....
- .....
- .....
- .....

#### Bigarren prozedura (ohikoena)

- .....
- .....
- .....
- Etorkinak lana aurkitzen baldin badu, bere burua lan eskaintza horrekin aurkezten du
- .....
- .....
- .....
- .....

### ERREGULARIZAZIO BEREZIA

- Etorkin asko daude egoera ez-regularrean, gehienak lana dute, lan beltzean aritzen dira, eta orduan, ba, egoera politikoak aginduta, nolabait, ba, zabaldu egiten dute atea, erregularizazio bereziak egiteko.
- .....
- .....
- .....
- .....

- Binaka jarrita, alderatu zuen erantzunak.

- Entzun bigarren zatia eta erantzun ondoko galderi:

1. Zenbat etorkin daude Euskal Herrian, gutxi gora behera?
2. Asko ala gutxi dira Agustinen iritziz?
3. Zein izango da hemendik aurrerako joera?
4. Desoreka handia dago kupoaren eta aurkeztutako lan-baimen eskaeren artean. Zein dira Gipuzkoako 1999ko datuak?



- Etorkin batzuen esperientziaren berri izango duzue orain. Hirunaka jarrita, irakurri etorkinen bizipenak jasotzen dituen testu bana eta jaso daturik inportanteenak ondoko taulan. Ondoren, taldeka jarrita kontaktu ikaskideei.

**TRINI P. Eduadortarra**

## DIRUA BILDU ETA ITZULTZEA DUT AMETS

**P**aperik gabe dago, eta Trini P. –pentsa litekeenez– ez da bere egiazko izena.

Duela bi hilabete iritsi zen Ekuadorretik, eta mundua erori zitzaion gainera. “Hango ezagun batzuek esan zidaten hemen lana banuela. Espainiara iritsi nintzen eta kontak-tua ez zen inondik azaldu. Gezurra esan zidaten, engainatu egin ninduten... 2.000 dolarreko zorra dut, eta bi urte ordaintzeko”, esan digu ahopeka, larritasuna ezin ezkutaturik.

“Hango egoera oso txarra da, krisi ekonomikoa handia da... baina, lana banuen. Etxea, seme-alabak, senarra, aita eta ama... dena utzi nuen atzean hona etortzeko, etorkizun hobeago bat eraikitzeko ilusioz. Hori da gu-guztion ilusioa. Etorri, lana egin eta itzuli. Lana egin nahi dugu; paperak lortu eta lana egin”, dio, goibel.

Lanean ari da gaur-gaurkoz, Caritasekoek aurkitu zioten lanean. “Emakume txikitxo eta zahartxo baten etxean nago, neskame bezala, interna. Ondo hartu nau eta 100.000 peze-ta ordaintzen dizkit hilerok. Gaur lanean ari naiz, baina akaso bihar emakumeak “eskerrik asko eta adio” esango dit...” Ez dirudi, ordea, kezkatzeko arrazoirik duenik, etxeko nagusia bera ari baitzaio paper kontuetan



laguntzen: “Berak erroldatu nau. Ez du nahi ez berak ez nik arazorik izatea. Beldurra du, harrapatzen badute zigorra ezarriko diotelako”.

Paperik gabe egotea oso zaila gertatzen zaio, eta hartu eta bidaliko duten beldurrez bizi da Trini, agerikoa duenez. “Etxeko nagusiak esaten dit etxetik ateratzeko eta lasai ibiltzeko, ez ezkutatzeko. Baina poliziaren patruila ikustean, beldurra sartzen zait”.

Trinik badaki, ondo jakin ere, hartu eta etxeratuko balute, ez lukeela aukerarik izango bisatua lortu eta berriro hona bueltatzeko. “Hartua dudana zorra ordainduta banu, akaso. Baina oraintxe ez. Nola egin aurre hartuko nukeen zor berriari? Honen ustez, Espainiako enbaxadan bertan eman beharko lizkiekete paperak etorkinei. “Nik uste dut horretarako direla enbajadak eta kontsultuak. Zergatik behartu nahi gaituzte berriz bidaiatzera, berriz zorpetzera?” galdetu du, erantzunik ezin aurkituta.

MUSTAFA Marokoarra

## EKARPEN ONURAGARRIA DIRA ETORKINAK

**A**skatasun bila etorri nintzen, kuriositateak bultzatuta, nire herrian presio izugarria dagoelako”. Mustafak 36 urte ditu, eta hamasei urte dira Euskal Herrian bizi dela. Marokokoa da, baina berbere etniakoa, ez lurralderik ez hizkuntzarik errekonozitzen ez zaiona. Magreb osoan boterean dauden diktaduren egoneza gaitzetzeko alde egin zuen. Euskal Herrian eroso sentitzen da, berbereak bezala “euskalduna herri langile eta borrokalaria delako”. Goi mailako ikasketak ditu, eta merkataritza Nabigazioan ere ibilia da. Bilbo ezagutzen zuen baina ez itsasoan ibiltzeagatik, ETaren ekintzei buruz entzuten zituen berriengatik baizik, Rif aldean espainiar telebista kateak hartzen dira-eta. Bestalde, Otxarkoagako neska batekin gutun bidezko harremana zeukan.

Ezkondu berria da, duela bi hilabete. Gure artean erabat integratuta bizi dela aitortu arren, emaztea berbera du, “kulturak eskatzen dizulako”, dio barrezka. San Frantzisko eta Bailen kale artean dagoen Bere-bar jate-txe-tabernako jabe-kide da. Mustafak garai zeharo ezberdinak bizi izan ditu, inmigrazioaren epe biak. Bera heldu zenean apenas zegoen etorkinik Bilbon; denak ziren ezagunak eta poliziek ez zuten paperik eskatzen. Kanean zihoala diosala egiten zioten eta bere kulturari buruzko hamaika azalpen eman behar izaten zituen, gustura gainera: “Orain erabat aldatu da giroa; jende asko etorri da, egoera oso txarrean daude, beldurra da nagusi eta bertakoengan ere urduritasuna nabari da”, azaldu du. Baina Euskal herrian jasangarriagoa omen da presioa, Espainiako hiri handiekin konparatuz gero. Eraso arra-



zistak ere oso urriak dira hemen, “mairu” esaten badidate ez dut iraintzat hartzen, orain politikariek ere esaten dute-eta!”

Etorkinak mespretxatzen dituztenek altxor bat pasatzen uzten dutela dio Mustafak. “Ekarpen onuragarria dira etorkinak, erabili nahi duenarentzat: kultura ezberdina, ohiturak, informazio iturri fidagarria, hizkuntza berria...”. Islama kultura ezberdina izanda ere, gutxi kostatu zaio gure artean txokoa egitea. Ateotzat du bere burua, baina edarierkin edo txerridun pintxoekin arazotxoren bat izan du: “Azkar ikasten da atzerrian bizitzen, errespetuz jokatzuz gero, bertakoa mehatxatu gabe”. Tabernako lana baino lehenago, tokian-tokiko saltzaile izan zen, eta horretan ikasi zuen gaztelaniaz. Bere-bat tabernako bezero batzuek euskaraz egiten diote; baita berak erantzun ere.

Bilbo eta Bizkaiko geografia gustuko ditu, eta gogoan du Portugaleteko Zubi Esekia lehen aldiz ikusi zueneko. Kutsadura hiriren minbizia dela dio. haragidun piper gorriek eta bakailoak pil-pil eran zoratu egiten dute. Hemen bizi arren, jaioterria ez du ahazten. han dituen arreba biei diru pixka bat bidaltzen die solteago dabilenean, eta bi urterik behin saiatzen da bueltatxo bat egiten.

JANETH Kolonbiarra

## OPAROTASUNEAN BIZI GARELA USTE DUTE HAN

**J**aneth hogeita bat urteko kolonbiar berritsua da. Calivalle hirian bizi zen, aita eta 105 urteko amonarekin. Bederatzi hilabete daramatza Bilbon, azken seiak ia etxetik irten gabe, oporraldiko baimena agortu eta paperik lortu ez duelako. Enpresa Zuzendaritza ikasketak eginak ditu, eta horretan lan egiteko itxaropenez etorri zen Euskal Herrira titulua –kartoia, bere herrialdean– hartuta. Etxe garbiketan egiten du lan, Kolonbian bere etxekoa ere egiten ez zuen arren. Baina ez da horretaz lotsatzen, hilean irabazten dituen 65.000 pezetekin bere burua eta familia mantentzen dituelako.

Egunero 300 bat lagunek alde egiten dute Kolonbiatik, egoera ekonomikoak eta langabeziak bultzatuta. Horietako bat da Janeth: “Gobernuak badaki, baina ez du ezer egiten”. Alde egitea erabaki zuenean aitari oraindik bezeroak joaten zitzaizkion auto tailerrera, eta bidaiak balio duen 300.000 pezeta eta aireportuan erakutsi behar diren 1.000 dolarrak eman zizkion; guztira ia 600.000 pezeta. Botika Zaharrea bizi da izeba, neba eta Atlantiar Itsasoa berarekin batera gurtzatu zuen Hernán ikaskidearekin. Eraikuntzan egiten du lan honek.

Mutil-lagunak ez zion sinetsi ere egiten alde egingo zuenik. Familiatik eta lagunengandik urrun egotea da Janethi zailen egiten zaiona. “Haiek uste dute European egoteagatik oparotasunean bizi garela, eta ez etortze-



ko esaten diegunean berekoiak garela egozten digute”. Bizitza hobea lortzeko itxaropena zekarren; eusten dio itxaropen hari, baina, Jaungoikoa lagun, dokumentuak lortzekoari orain. Bestela, datorren hilean alde egiteko asmoa dut. “Baina alde egiten badut, nola egin dezaket etxekoak laguntzeko?”. Dena den, ez luke alde egingo Espainiak Ekuadorrekin lortu duen akordioa Kolonbiarekin izango balu: “Joaten zarenean, enpresariak zutaz ahaztu egiten dira”.

Gustura bizi da gure artean. Oro har, oso tratu ona jaso duela diosku Janeth: “Patroiek konfiantza handia dute nigan, eta eskertzen diet”. Edadeko emakumeak kalean paseatzen edo tabernetan solasean ikustea asko gustatzen zaio, baita euskaldunon “dotorezia” ere. Donostia ikusteak aho zabalik utzi zuen. Gure jakietatik paella gustatzen zaio; barazkiak eta barbantzak ezin ditu jan. Asteburua bere egongelan ematen du, balleinatoak entzuten edo telebista ikusten. Meza entzutera joan zen behin Alde Zaharrera: “Euskaraz zen baina oso-osorik entzun nuen!”.

	Emigratzeko arrazoiak, zenbat denbora daraman hemen...	Egoera legala...	Integratzeko arazok, zailtasunak, erraztasunak...	Gustuko gauzak, janariak...
Trini P.				
Janett				
Mustafa				



## 2

Orain etorri euskaldun batzuen berri izango dugu: Najet, Mehasi eta Khadim euskaldunak dira eta gure gizartean erabat integratu dira. Kadimen berri izan duzue Ni ez naiz hemengo atazan; beste biak ere ezagunak dira ETBko hainbat saiotan agertu baitira.

- Begiratu argazkiei eta komentatu ondoko galderak:

- Ezagutzen al dituzu?
- Telebistako zein saiotan agertu izan dira?
- Nongoak diren ba al dakizu?
- Arrazakeria pairatu behar izan ote dute?
- Euskaraz jakitea mesederako izan ote dute?
- Telebistan ateratzea eta ezagun bihurtzea mesederako izan ote dute?

- Ikusi erreportajea<sup>5</sup> eta hartu daturik interesgarrienak ondorengo taulan:

Ibilbidea honaino, etortzeko arazoak, zenbat denbora daramaten hemen...

Egoera legala, paperak...

Integrazio arazoak, zailtasunak eta erraztasunak, euskara eta euskaldunekiko harremanak, ezaguna izatea mesederako?



Najet



Mehasi



Khadim


<sup>5</sup>Sorginen laratza. EITB

- Denon artean komentatu hartutako datuak.

Lehenago irakurritako testuei erreparatuko diegu berriro. Artikulu horietan etorkinen adierazpenak jasotzeko bi modu daude: batzuetan, estilo zuzenean (kakotx edo aipu marken artean) ematen dira; eta, beste batzuetan, zehar estiloan. Hona hemen taulan jasotako batzuk:

### Estilo zuzenean

- "Askatasun bila etorri nintzen, kuriositateak bultzatuta, nire herrian presio izugarria dagoelako".
- Euskal Herrian eroso sentitzen da, bereberek bezala "euskalduna herri langile eta borrokalaria delako".
- ...emaztea berebera du, "kulturak eskatzen dizulako", dio barrezka.
- "Orain erabat aldatu da giroa; jende asko etorri da, egoera oso txarrean daude, beldurra da nagusi eta bertakoengan ere urduritasuna nabari da", azaldu du.
- "Ekarpen onuragarria dira etorkinak, erabili nahi duenarentzat: kultura ezberdina, ohiturak, informazio iturri fidagarria, hizkuntza berria..."
- Meza entzutera joan zen behin Alde Zaharrera: "Euskaraz zen baina oso-osorik entzun nuen!"
- "Nik uste dut horretarako direla enbajadak eta kontsulatuak. Zergatik behartu nahi gaituzte berriz bidaiatzera, berriz zorpetzera?", galdetu du, erantzunik aurkitu ezinda.

### Zehar estiloan

- Gure artean erabat integratuta dagoela aitortu arren...
- Euskal Herrian jasangarriagoa omen da presioa, Espainiako hiri handiekin konparatuz gero.
- Etorkinak mespretxatzen dituztenek altxor bat pasatzen uzten dutela dio Mustafak.
- Kutsadura hiriaren minbizia dela dio
- Oro har oso tratu ona jaso duela diosku Janethek.
- Haren ustez, Espainiako enbaxadan bertan eman beharko lizkiekete paperak etorkinei.

- Kakotx artean agertzen diren esaldi eta hitz horiek elkarrizketatuaren adierazpenak estilo zuzenean, hitzez hitz, jasotzen dituzte. Ariketa moduan, saiatu estilo zuzenean dauden adierazpenak zehar estiloan ematen eta zehar estiloan daudenak estilo zuzenean ematen:

### Zehar estiloan

- Askatasun bila etorri zela dio Mustafak, kuriositateak bultzatuta, bere herrian presio izugarria zegoelako.

### Estilo zuzenena

- "Euskal Herrian guztiz integratuta nago", aitortu du. Hala ere,

- Artikulueta denborazko esaldiei erreparatuko diegu orain. Jarriko al zenituzke euskaraz?

- Mustafa tiene 36 años y **hace 16 años que vive** en Euskal Herria.

.....

- **Es recién casado**, hace dos meses.

.....

- **Lleva nueve meses en Bilbao**; los últimos seis sin salir de casa.

.....

- **Cuando iba por la calle** lo saludaban

.....

- **Antes del trabajo del bar**, fue vendedor ambulante

.....

- Recuerda **la primera vez que vió el puente colgante** de Portugalete

.....

- **Cada dos años** procura dar una vuelta



.....

- **Al ver a la patrulla** de la policía, me entra miedo.

.....

### 3

Orain, etorkin batzuen esperientzia idatziz ematea proposatu nahi dizugu. Ondorengo argazkietan agertzen direnak etorkinak dituzu. Nondik etorriko ziren? Zein ote dute oraingo lana? Enpresaria, margolaria, zerbitzaria... paperik gabea? Nor da nor? Bakoitzak bere historia eta bizipenak ditu.





- Aztertu honako puntuak:

- Sinesgarria al da kontakizuna? Zergatik?
- Erreparatu estilo zuzeneko eta zeharkako esaldiei. Ondo eginda al daude?
- Erreparatu denborazko esaldiei: ondo al daude?
- Nola dago txertatuta esaldia?
- Aldaketarik egingo al zenuke? Zein?

- Bukatzeko, jarri gelako hormetan testua eta irakurri ikaskideren batek zuk idatzitako pertsona berari buruz egindako testua. Komentatu egilearekin aurkitutako bat etortzeak eta aldeak.



## 5. ATAZA: ETXE ALDERA

Emigrazioaren gaiak isla nabarmena izan du zineman, kantuetan eta literaturan. Azkenaldian, izan ere, hainbat pelikula, disko eta liburu egin dituzte gai horren inguruan. Gogoratu, esaterako, “Flores de otro mundo”, “Las cartas de Alou” filmak, Ruper Ordorikaren “Etxe aldera” edo Manu Chaoren abestiak, edota “Sartu, korrontea dabil” edo “Lehorreko pate-rak” liburuak. Gai honi lotutako beste abesti, pelikula edo libururik gogoratzen al duzu?



1

- Saiatu ahalik eta gehien gogoratzen.

Abestiak	Pelikulak	Liburuak

- Komentatu denon artean emandako erantzunak.

"Etxe aldera" abestian Ruper Ordorika udan errepideetan etxerako bidaian ikusten ditugun emigrante batzuei buruz dihardu.



- Begiratu argazkiari eta minutu baten jarri ondoan burura datozkizun bost hitz. Ondoren, komentatu denon artean.



- Entzun abestia eta, entzun ahala, saiatu testuan falta diren hitzak hartzen.

Leihatilatik ikusi nituen ..... batek hego ipar  
 ..... saltzen bazterretan ..... du lehen-mundua  
 ..... dira ..... ehundaka emigrante handik  
 ..... aldera, ..... auzoetatik ..... aldera.

Hego aldetik ..... Hego aldetik .....  
 .....  
 ....., .....

Izarrik ..... Izarrik .....  
 .....  
 .....  
 .....

Hortxe dihoaz, bere .....  
 ..... ni ere banoa  
 ..... etxerik...

## 2

- Irakurritako literatur pasarteek emigrazioaren gaineko ideien bat edo beste iradokitzen digu. Irakurri eta lotu pasarte bakoitza ondorengo ideien batekin. Besterik erantsiko al zenuke?

- Etorkinek bere artean elkartzera jotzen dute.
- Emigranteak herrimenez bizi dira: euren jaioterrian dituzte burua eta bihotza.
- Nazio aberatsek gerrarako baliatu ohi dituzte etorkinak.
- Ez da zaila etorkinekiko elkartasuna erakustea: denon esku dago haiei laguntzea.
- Etorkinek hainbat gauza (lana...) kenduko diguten beldur gara.
- Gazteek ez dute itsasokoa bezain lanbide gogorrik nahi. Afrikarrek, etorkinek oro har, hartzen dituzte lanik gogorrenak.
- Etorkinek hizkuntzak ikasteko trebetasun handia daukate.
- Eskean aritzea azken aukera da.
- Ez ditugu berdin hartzen etorkin guztiak.
- Afrikarrek izugarritzko morboa sortzen dute sexu aldetik.
- Semea edo alaba marokoar etorkin batekin ibiltzea kezkatzekoa litzateke.
- Batzuetan etorkinak ez ditugu pertsona moduan tratatzen: haiekin edozer egiteko eskubidea dugula iruditzen zaigu.
- Aniztasunean bizitzeak onurak ekarriko dizkigu eta horretara ohitu beharra daukagu.
- Gure gizartera datorren etorkinak bertako ohitura eta gizarte arauetara egokitu beharra dauka.
- Pertsona ez da jaio den tokikoa, bizi eta lan egiten duenakoa baizik.
- ...

- Taldeka bilduta, arrazoitu egin dituzuen loturak eta erantsitako ideiak azaldu.

- Bukatzeke, azaldu denon aurrean taldeetan sortu diren komentariarik iradokitzaileenak.

## 1. TESTUAK

### 1

Abenduak 22, ostirala

Grabaketei ekin diegu gaur. Omar izan da lehena. Ginea Konakrikoa da jatorriz. Europan neguan jende guztia loditu egiten dela dio Omarrek, arropa bata bestearen gainetik jantzi eta mundu guztia dela lodi. Ongi zekien bere aitak Europako neguen berri. Frantsesek eraman zuten soldadu Bigarren Mundu Gerran. Negurik luzeenak ezagutu zituen.

#### OMARREN KONTAKIZUNA

Gure aita Europan soldadu egon zen, frantsesen armadan, alemanen aurkako gerran. Aitak esaten zuen:

"Europan hotz egiten du, Europak hozkailua ematen du. Europa nolakoa den jakin nahi baduzu, zabaldu hozkailua, bost minututan sartu eta ateratzen zarenean esango didazu zer sentitzen duzun. Bada Europa horrelakoa da. Familiarik ez baduzu, ez baduzu lagunik, sufritu egingo duzu, hil egingo zara".

Lan aukerei buruz hitz egin digu gero. Afrikar gehienak itsasora joaten dira. Herriko gazteek ez dute hara joan nahi. Omarrek argi dauka.

Nik nahiago dut ez joan itsasora. Ez badago beste irtenbiderik joango naiz. Soldadu joatea bezala da, azken aukera. Ez baduzu beste egitekorik, hara joan behar duzu, bizi behar duzu. Ezin zara elizako atarian eskean egon. Indarra izanik, osasuna izanik, lan egin behar da. Itsa-soa hortxe dago eta ez du ihes egingo. Ez badago beste irtenbiderik, hara joan behar da.

\*\*\*

Ginean hizkuntza ugari daude: soso, foula, mandingo, gbeze, toma, landouma, kissi, yalounke, yaloun soso... Ni soso naiz, baina Gineako zazpi hizkuntza hitz egiten ditut. Europakoetatik lau. Bosgarrena ikasten nabil: "Zer nahi duzu?, zertan zabilta?, ona, gaiztoa..."

Kirmen Uribe  
BAR PUERTO

Trena gelditzen ari da. Gaueko hamarrak direla ikusi du Abdouk geltokiko ordulari nagusian. Eta ordulariaren azpian dagoena ez zuen espero; hori ez zuen espero, ez, bidaiatzeko modurik ziurrena trena zela esan baitzioten. Ez zitzaiola deus gertatuko. Egia da gaez bidaiatzeko aholkatu ziotela. Amak erositako alkandorak oharkabeagoa egin ahal du. Izerdia dario lokietatik: polizia dago nasan, kale-jantzian, hurrengo noiz atxilotuko zain.

Bagoira itzuli da emakumea. Beste behin, bigarren aldiz, begiratu dio emakumeak Abdouri, kezkatuta, polizia nola saihestuko duen galdetuz bezala. Poltsan liburua gorde duen gizona eta gaztea, berriz, ez dira poliziaren presentziaz jabetu. Gazteak beste nonbait du dagoeneko begirada, eta burua.

Zigarro bat eskaini dio emakumeak Abdouri. Beren eskuek elkar ukitu dute metxeroarekin su-lama gerturatu dionean. Abdouk ezin izan du, ordea, irribarrerik egin eskerak emateko. Emakumeak maleta bat jaitsi du buru gainean duen burdinazko apaletik. Gazteak besapean babestu du musika-tresnaren poltsa.

Abdouk, berriz, eserlekuan jarraitzen du. Euria egingo balu, trenari ez geratzeko eskatuko lioke, aurrera jarraitzeko, eta atzera egiteko hiri hartara eraman duten kilometro guztiak; baina geltokia handia da, erraldoia, eta babesten duen teilatuak ez dio kanpoan euria ari duen ala ez ikusten uzten.

Hirurak bagoiko atera gerturatu dira, eta lehenengo nor gurutzatuko duen zain geratu. Geltokiaren derrepenteko argitasunak agerian utzi du Abdouren beldurra.

Erabat gelditu da trena orain; Abdouk ez du zutitu eta bere poltsa sorbaldan zintzilikatzeko beste erremediorik izan. Emakumean ateratzeaz zegoen, baina lehenengo gizonari eman dio bidea.

Nasatik, jaisten doazen guztiak miatzen ditu begiradaz polizietako batek. Gizona badoa behera, eta haren atzetik gaztea. Azken begiratu bat eman dio honek Abdouri, bat-batean dena ulertu duela adieraziz bezala. Atzera egin nahiko luke Abdouk, baina beranduegi da jada. Emakumearen txanda iritsi da; Abdou haren atzetik doa, poliziaren irribarre maltzurra begietan sartzen ari zaion unean berean. Eta oso azkar gertatu da dena, segundo batean: emakumeak besotik heldu dio Abdouri.

Nire senarra makal samarra da, esan dio poliziarri zalantza izpirik gabe. Goazen, laztana, alaba zain dugu-eta.

Emakumeak ez du ezer gehiago erantsi, musu leun bat Abdouren masailean, hori besterik ez. Besotik helduta jaitsi dira bagoitik. Abdou hitzik gabe geratu da; ezin du gertatzen ari dena sinetsi. Baina besotik tinko heltzen dion emakumearen aginduetara dago. Erabat.

Poliziak susmoz beterik begiratu dio bikoteari segundo batez; hitz ahoan du. Lankideari zerbait esan eta lanean jarraitu dute biek.

Liburua besapean duen gizonak den-dena ikusi du. Zerbait esatera doa, baina nahiago izan du behin-behineko bikotea geltokiko sarrera nagusitik desagertzen ikusi –liburuetan ez baitu horrelakorik inoiz irakurri ahal izan—. Gaztea geltokiko eserleku batean eseri da, beste edozein izan zitekeen eserleku batean. Eta zerbaiten zain geratu da.

Geltokitik atera denean, euria ari duela ikusi du Abdouk. Emakumeak polizia begira ez dutela ziurtatu ondoren, besoa askatu dio Abdouri. Honek irribarre zintzoa eskaini dio: zigarroarena ezin izan dio eskertu, baina bai geroztik egin duen guztia. Ondoren, azken begirada bar agur modura. Istant batez.

Zain duen gizon bati eman dio musu ezpainetan emakumeak, oso leun. Motor batera igo eta urrundu egin dira.

Abdouk, berriz, poltsikoan duen helbidea atera du taxi batera igo aurretik.

## RUSOA

Mobilizazio deia egin eta hilabetetsura alde egingo zuen Borisek gure artetik. Gogotik txalotzen genizkion jokaldiak, kaioen hegaldi astiroa lur hartzean nola, halaxe ospatzen zituen golak. Hanka-zain bizkorrekoa zenuen, talde lanean ona, burua zein zangoa baloirik gaitzenari luzatzeko gertu beti. Ostikolari bikaina.

Etorri orduko hartu genuen geuretzat. Arrotz zitzaigun haren mintzoa, baina maite genuen, txori kantua egiten genuen doinu apal eta ilun hura, gure fantasiak janzen zuen esanahi ederrez haren hitzen morokil lakarra. Halaxe, deblauki, etxekotu zitzaigun, gogoan txertatu eta harrezkero gurean sasoi bikainen gomuta dei egiteko manera da Borisen hizpidera ekartzea.

Begiratu zuen tristea, beti norbaiten esperoan egoteko sortua balitz bezala, harri batena legezko grina etsi ezinarekin, eta eskuak handiak udazkeneko zerua lakoak.

Kazetariak goitizenez deitzea gurago izaten zuten, *Otso urdina*, *Kaukosoko Tsarra* eta itxuragabe-koagoak ere bai, baina Boris zen guretzat. Inork min egin nahi zigunean *Rusoa* deituko zion, eta guk segikadak egiten genizkion, astintzeko ez bazen, harrika emateko bederen. Artean ez genekien ia ezer nazioarteko politikaz; hala ere, esateko era errearengatik susmatzen genuen zerbait txarra behar zuela, destaina modu bat *Rusoa* esate hark. Bi urtez segidan bosgarren geratu zen golegileen zerrendan.

Herrian elkarte bati bere izena eman zioten. Lehenago Ixtingorra kultur elkarte zena Peña Boris izenez bataiatu zuten. Orduak eman zituen han. Bertan egin ohi zuen afari legea ia egunero. Arrautza pare txorizo mutur batekin. Egokitu zitzaigun inoiz han ikustea, erromesen antzera inguratzen ginen boris zaleok hara.

Denboragarrean, baina, joateari utzi zion haserre bat bitarteko. Eta berriro izena aldatu zioten elkarteari, horrela berpiztu zen Ixtingorra.

Esan zuten Boris bere betiko mahaian afaltzen ari zela, bakarrik, barreneko aldean, erdi ilunean, gizon bat elkartean sartu zenean, besoan alfonbrak zituela. Bazkide bakan batzuk baziren bertan. Bodegero egiten zuen eraso omen zion saltzaileari. Lepazamarretik heldu eta ostikoka atera zuen. Kopeta belztu eta jaiki da Boris marmar batean, inork ulertu ez zizkionak bere mintzamolde ilunean ebakiz. Hartu du eserita zegoen zurezko aulkia eta paratu da elkarte atarian, bere izena idatzia zuen kristal landu handiaren arrear. Indartsu, amorrus jaurti zuen aulkia. Hegan egin omen zuen, kaioek ur azalera nola, beirazko ortzi tenkatuari buruz. Milatxiki eginda kazkabartu zituen zoruan elkartearen txirtxilak. Denek ulertzeko moduan egin omen zuen alde Borisek. Tente, isilean. Gizandi bat erne zitzaien gure begiei.

Kaukaso aldetik gerra albiste beltzak heltzen hasi zirenerako Boris laugarren denboraldia betetze-koa zen hemen. Prentsak albiste-gose zirikatzen zuen iritzia eman zezan, bazekitela familia han zuela, bere herria suntsitu zutela ia, kalean hildakoak zakurrek jaten zituztela. Eta uzkur ageri zen beti, baita, txarrera, norbaitek ea *Rusoa* zergatik deitzen zioten galdetu zionean ere. Futbolari buruz itaun egiteko erregutzen zien kazetariei erdi totelez, futbol kontuetan nahi adina hitz egingen ziela. Eta negute sarkor batek hartzen zuen Borisen begitarte ederra.

Egundo ikusi gabeko esne atera zuen adiskidantzazko partida hartan. Bi gol sartu zituen, min eman arte besarkatu zituen taldekideak, hegaldi eroak egin zituen sosegatu ezinik belar gainean. Xelebre begiratzen genion elkarri, algaraz eta txaloz hartzen zituzten zaleek Borisen komeriak eta grina zoroa. Guk, aldiz, bagenekien ez genuela berriro ikusiko gure elastikoarekin, alferrik saiatu ginen berandura arte autografo bila. Errietan eman ziguten etxean.

Gerrara joan zenean auzitara eraman zuen gure direktibak hitzartutako kontratua bete ez zuelako. Halako batean, ordea, gerra amaitu egin zen, gauza gehienak bezala.

Futbolerako onenak emanda baina osorik atera zen Boris. Italiako bigarren mailan ari zela esan ziguten. Igande arratsaldeetan partida ikusteari utzi eta neskatan saiatzen hasi ginen sasoiak. Ez zen berriz etorri. Beranduegi zen gure maitasunarentzat.

Jose Luis Otamendi  
EURI KONTUAK

## IRAGANAREN KATEA

Selim, Selim, Selim Al-Qadi... Non ote habil? Hire beharrik handiena oraintxe sentitu eta, non ezkutatu haiz? Zergatik ez didak deitzen? Egunkariak irakurri ditiat, bai, baina ezer gutxi zakiat: Dulantzin atxilotuak izan zineten, komisaldegian gaua eman eta biharamun arratsean, Gasteizko tren geltokira eramanean zintuzteten, poliziaz inguratuta eta itzulerako bilete banarekin; baina han, ordutsu hartan, manifa bat zela-eta istiluak piztu zituan eta zuek hanka egin zenuten. Ihesaldia, ostera, asteartean gertatu zuan eta ez zakiat bien bitartean zer gertatu zai. Selim, Selim, Selim Al-Qadi..., esan zioat poliziarenera deitu eta telefonoa hartu duen emakumeari. "Thesean dabil, oraindik ez dute atxilotu", esan zidak. Eta gogorik ez izan arren, hi nonbait ikusiko hindudalakoan, hi ikusteko irrikatzen, larunbat gau honetan kalera irten nauk. Baina ez haiz agertu, ez haiz agertu eta azkenean nik kristoren mozkorra harrapatu diat. Mozkortuta, halako batean, tabernetako kalapita eta iskanbilarekin nazka-nazka egin eta Armentia alde-ara abiatu nauk. Bakar-bakarrik. Beharbada inguru haietan ezkutatuta egon hintekeen. (Bai, bazakiat gezurra zela, baina gezur ttiki horretan sinestea komeni zitzaidan.) Egia esan, negar batean hasi nauk Xendan barrena. Hainbeste gauza ditiat hiri kontatzeko! Goizaldeko ordu biak aldean Armentiara heldu eta zenbait auto ikusi ditiat han eta hemen aparkatuta, eta bikoteak korapilatuta. Gu geu ere, beste tokirik ezean, azken aldi sutsuan honaino etortzen gintuan elkar maitatzeko, oroitzen? Baina guk autorik ere ez genian eta Berrostegietarako bide bazter batean jostatzen gintuan. Selim, Selim, Selim Al-Qadi... Zergatik ez haiz agertu ene bakardade gorria betetzera? Nori kontatuko diot bestela barrena estutzen didan nahigabe hau? Zeren hireaz gain, ostegunean beste sufrikario bat hasi baitzen, eta a zer nolako! Esan nian bezala, hilerokoa dezente atzeratzen ari zitzaidan, bularrak ohi ez bezala handituak nitian eta badaezpada ere analisi bat egitea pentsatu nian. Sartu nauk Bilboko farmaziarik ezkutuenera eta *Predictor* bat eskatu diat. Larri, etxera itzuli, argibideak bizpahiru bider irakurri eta, komunera joanda, haiek hitzez hitz jarraitu eta zain geratu nauk, kotoian ager zitekeen mantxa gorrixkaren beldur... Azkenean, ausartu nauk, hartu diat traste ditxosoa eta, larri baino larriago, begiratu diat eta ez nauk gai izan koloreari antzemateko; gorrixka bai, baina horixka ere bazela esan zitekean. Atzera jaitsi nauk kalera. Jona nauk farmaziara, eta arimarik ez zegoen une batez baliatuta, sartu egin nauk. Bertako neskak hartu dik traste nazkantea, begiratu zioak eta, irribarre biratsu batekin, ez zidak ba "Positiboa" esan! Etsipenari amore eman nahi ez eta, banketxeko hire kontutik sosak atera eta beste farmazia batean beste *Predictor* bat erosi nian. Aurrekoan baino urduriago, isuri diat txiza tanta kotoi gainera eta, lehen bezalaxe, zalantzaz beterik geratu nauk. Zer esan nahiko ote zuen kotiko koloreak? Halako gauzeekin kontu handiagorekin ibili beharra dago! Kaka morralean! Atzera kalera jaitsi nauk eta oraingoan farmazian jendea zegoela sartu nauk. Emaizta zein ote zen? Eta hara non, ene pozerako, botika gizonak "Negatiboa" esan didan, "Ez, ez zaude haurdun". Eta egia duk hasiera batean lasaitu ederra hartu nuela, baina eguna aurrera joan ahala ene estutasuna handituz joan zuan. Zein botikarik ote zuen arrazoia? Eguzki erloju bat eguraldi ilun eta hodeitsuenean bezalaxe nengoan, ikara hezurretan eta kaka dariola. Froga haien ondolik ez ninduan etxera berehalakoan itzuli. Batera eta bestera ibili ninduan, noraezean, eta egia esan, ibilaldi hartan farmaziak besterik ez nitian ikusi (eta askotan txarteltxo bat: "Haurdunaldi froga egiten dugu"), eta kioskoetan guraso berriei eskainitako aldizkariak... Etxera itzultzerako erabakia hartua nian. Eta egin banuen egin nian, Selim... Amaigabeko ordubete baten ondolik emaitzaren bila joan, analisisa ordaindu, eta kanpoan zabaldu nian han emandako gutuna, eta hura zabaldu eta "Positiboa" irakurri nuenean, ondoeza egin zitzaidan. Zurbil, ahul, kafetegi batean sartu eta kafesne bero bat eskatu nian. Eta pentsatzea nik mendekua ordurako prest nuela... "Positiboa" esan zidan lehendabiziko botikariarengana joan, txiza analisiaren emaitza mutur aurrean ipini eta honela esango nion: "Negatiboa! Ez al duzu ikusten? Gauzokin serio jokatu beharra dago!". Eta bost axola farmazian jende egon ala ez egon, zer mila sorgin! Ikusi egin behar huen zein ironikoki bota zidan "Positibo" hura. Baina, mendekuak mendeku, okerrean horixe zuan, analisisak positiboa eman zuela, positiboa! Ba al dakik horrek zer esan nahi duen?! Hala eta guztiz ere, oraingo honetan hotz jokatzea erabaki nian. Nik ez nian haurrik ene baitan sentitzen; ez nengoan ama izateko prest. Izan, izan nahi dudala uste diat, baina ez egoera honetan, ez honela. Ez, horixe! Orain ikasi egin behar diat, gogotik, baina ez diat ez ene ez ene balizko haurra-aren bizia alferrikaldu nahi. Etxekoekin ere gogoratu ninduan...; ez nian pentsatu ere egin nahi. Gure auzuneko anbulatoriora jo nian. Egun hartan ginekologoak jai zian, baina hango erizain bati argi min-



tzatu eta beste analisi bat egitea aholkatu zidaan. Erizain aditsu batek hartu nindian, eta ene kasa analisiak egiten dirua alferrikaldu gabe, zuzenean hara jo behar izan nuela esan zidaan, baina dagoeneko berandu zuan. Gero, haurra aipatu gabe, eta begietara begiratuta, nituen aukerak aipatu zizkidan. Beraz, egia zuan: haurdun nengoan... Sinetsi beharra neukan. Ene estutasuna ikusita, erizainak lasaitzeko esan zidaan, eta emango zidan helbidean laguntza handia jasoko nuela eta dena konponduko zela. Barrena lasaixeago izan arren, korrika batean joan ninduan helbide hartara. Etxe zahar bat zuan, eta han, beheko solairura jaitsi eta "Familia plangintza" irakurri nian txartel batean. Itxaronaldi amorrugarri eta nazkante baten ondoren sartu eta P(sikologo) gazte bat adeitasun handiz mintzatu zitzaidan; nik barrena estutzen zidan guztia zapla bota nioan. P-k ahalbideak, arriskuak eta denak azaldu zizkidan, eta horren ostean ginekologo bat etorri eta, mahai batean etzanarazi eta, hankak zabal-zabalik nituela, aztertu, haztatu, eta baietz!, zazpi astekoa nuela esan zion P-ri. Ene, ene,ene! Zazpi astekoa, Selim! Hara sartu nintzenezan bihotz erdi-erdian euritako bat zast! Sartu izan balidate bezala geratu ninduan. Zazpi aste! Hala ere, P-renetik lasaitu ederra hartuta eta astelehenerako beste helbide eta beste hitzordu batekin irten ninduan. Eta nik, Selim, hau guztia bihotzean ongi korapilatua ekarri nian, hiri ostiral gauean kontatzeko, baina egunkarietan aipatutako ihesaldi haren eraginez-edo, hi ez hintzen agertu. "Ihesean dabil, oraindik ez dute atxilotu". Eta orain, Armentiatik etorri berria naizelarik, burua nahas-mahas dudala, sekulako hutsunea nabaritzen diat ene baitan. Hainbeste gauza nitian hiri kontatzeko-eta! Selim, Selim, Selim Al-Qadi... Non arraio ote habil?

Patxi Zubizarreta  
EURIA ETA OZPINA

## 5

Mairua zen, afrikano horietakoa, kolore berdekoa behintzat. Piontzan aritzen zen, baina benetako abilezia neskak izarratzea zuen.

Lana amaitu ondoren bide ertzean geratzen zen bokadiloa jaten, eta ilundutakoan sastrakadi baten atzean ezkutatu eta bakarrik pasatzen ziren neskei ateratzen zitzairen. Ez zien hitzik egiten, ez baitzegoen gizajoari ulertuko zion kristaurik, baina zera erakusten zien. Eta neskak izarratuta.

Ikustekoa omen zuen zera.

Eta ilunabarrero, gurasoen ezkutuan, herriko neska guztiak sastrakadi haren ondotik pasatzen ziren. Neskazahar kafesne zaleen elkarteak ere gau-peregrinazio bat eratu zuen, aingeru hark mirari orokor bat egin ziezaien. Erretorearen arreba ere izarratuta gelditu zen. Zenbait emakume ezkondu ere, alkatearena eta, hasi zen ilunabarretan etxetik ateratzen, txokolatea hartzera, ziotenez.

Fama handia hartu zuen mairuak.

Herriko jaun prestuak ordea ezin zezaketen halakorik permiti: mairu arrotz madarikatu hura nahasle bat besterik ez zen, erreboluzioa jarri nahi zuen bazterretan. Neurri gogorrek hartu behar ziren. Han abiatu ziren, eskopetak bizkarrean, zakurrekin.

Zera ebaki eta zakurrei bota zieten. Arrastaka eraman zuten herriraino; plazaren erdian utzi zuten, biluzik eta odoletan. Biharamunean, gorpua ikusirik, espantuka eta marruez hasi ziren emakumeak. Kontzejupean jarri zuten maindiretan bilduta, aldare moduko baten gainean. Kandelak piztu zizkioten. Hurrek leihoetatik kuxkuxeatzen zuten.

Gau hartan, herriko emakumeak izar banaz erditu ziren.

(Lo harrapatu zuten sastrakadi atzean. Lau tiro jo zieten postaz. Abdullah zuen izena)

Koldo Izagirre  
GAUZETAN

## 6

## IRAGANAREN KATEA

Nere sentimendua  
nahi det deklaratu  
Ameriketan nago,  
hau ezin ukatu!  
Hemen eginagatik  
ondo gobernatu  
horkoaz egiten naiz  
asko akordatu.

Honuntz etorri nintzen  
utzirikan ama,  
anai-arrebak eta  
familia dana.  
Egiteagatikan  
desio nuena  
geroztik triste dabil,  
ai!, ene barrena.

Hamazazpi urtetan  
banuen segira,  
neska gazte guztiak  
neroni begira.  
Lurrik ikutu gabe  
gorputzari jira,  
orduko arintasunak  
asentatu dira.

Gorputz ederra nuen,  
dantzari arina,  
baina ez da izaten  
betiko egina.  
Hemen eginagatik  
orain ahalegina,  
ez gera libertitzen  
orduan adina.

Horko bizimoduaz  
oso aspertuak  
honerako ziraden  
gure desioak.  
Orain atzera berriz  
emanik pausuak  
hemen bizi gerade  
erdi mudatuak.

Despedida dihoa  
sei bertso hoiekin,  
anaia konformatu  
horrenbesterekin.  
Nere gustoa zer dan  
nahi badezu jakin,  
beste horrenbeste jarri,  
adio, Jose Joakin!

## 2. AUTOEBALUAZIO-ORRIA

### A multzoa

- XXI. mendeak ekarriko digunaz hitz egin dugu lehenengo atazan. Euskal gizarteari begiraturata, idatzi hiru iragarpen ondorengo moduetan hasita.

Argi dago .....

Baliteke.....

Beldur naiz .....

Zorionez.....

- Erakusleak kohesio emailere direla ere ikusi dugu. Azpimarratu testu honetan eginkizun hori duten erakusleak eta seinatu zeri egiten dioten erreferentzia.

“Gure planeta arrisku gorrian dago. Biodibertsitatea kili-kolo, desforestazioa arrapaladan, klima-aldaketa jada gure artean, ozono-geruzaren zuloa gero eta handiagoa eta erregai fosilen epemuga hurrago. Emisio poluzitzaileak murriztea izango da etorkizuneko erronka nagusia, horietan baitago aipatutako arazo askoren muina.”

“Injinerutza genetikoak ate asko zabalduko ditu. Klonazioa, elikagai transgenikoak eta gainerakoak eztabaidagai izango ditugu. Auzi honetan zientziak baino haratago etikak izango du zeresan handia. Bestalde, ireki zaizkigun ate horiek nora garamatzaten zehatz-mehatz ez dakigu.”

Iñaki Irazabalbeitia  
Zientzi dibulgatzailea  
Administrazioa euskaraz, 27. zenbakia

### B multzoa

- Demografiari eta etorkinei lotutako hiztegia eta hitz elkartuak landu ditugu hirugarren eta laugarren atazetan. Emango al zenuke ondorengo hitzen euskarazko ordaina?

Tasa de natalidad	Movimiento social
Tasa de mortalidad	Previsiones de población
Esperanza de vida	Contrato de trabajo
Estructura social	Permiso de trabajo
Sistema sanitario	Permiso de residencia
Proceso de envejecimiento	

- Etorkinak hizpide izan ditu bigarren atazan (Ni ez naiz hemengoa) eta laugarrenean (Ez daukat paperik). Aipatu ataza horietan entzun eta irakurrietatik geratu zaizkizun hiru ideia eta komentatu ikaskidearekin:

- .....
- .....
- .....

### C multzoa

- Irakurri dituzun literatur pasarteetatik zeinek sortu dizu zirrara gehien? Zergatik?
- Pasarterik izan al da liburuari edota idazleari buruzko jakin-mina piztu dizunik? Zein?

# 1. EUSKALDUNAK LUR BAT HARATAGO

Gero eta lagun gehiagok osatzen dituzte atzerrian unibertsitate ikasketak. Baduzu horrelakoen berririk? Atzerrian ikasten diharduen lagunik edo ezagunik ba al duzu?

Halako hiru bilbotarrekin solastatu da Egunkaria. Hirurak ere parranda zale amorratuak dituzu. Izan ere, artikulugileak dioenez, "Hertsiki lotuak daude ikasleak mugitzeko programen sona eta lagunon parrandarako grina sutua".



1

- Hirunaka jarrita, pentsatu nolakoa izango den hiru ikasle hauen bizimodua atzerrian:

	Ikastetxeak eta ikasketak: errezak/zailak...? Garestiak/merkeak?	Gizartea: irekia/ itxia? Hizkuntza: ...	Bizimaila: garestia/ merkea?	Parrandak:...	Zeren falta sumatzen duten
ZURIÑE (SUEDIA) Ikus-entzunezkoen ikaslea					
ALAIN (MILAN) Arte Ederretako ikaslea					
NAIARA (NEW YORK) Enpresa kudeaketako ikaslea					

- Orain, irakurri bakoitzak zati bat eta hartu daturik interesgarrienak.

# ATZERRIAN IKASLE

## Euskaldunak lur bat haratago

**G**ero eta lagun gehiagok osatzen dituzte atzerrian unibertsitate ikasketak. Halako hiru bilbotarrekin solastatu da Egunkaria

Atzerrira ikasle abiatzea asmo handiko hautua da. Gurasoen begipetik askatu, baina norbere burua antolatzen jakin: ikasi, ikuzi, bazka prestatu, astialdia arautu, lo egin... hamaikatxo ardura. Lagunoi ingurunea arrotz zaie, estreinako uneetan bederen.

Hizkuntza, eredu unibertsitarioa eta herrialdeko ohiturak bere egin behar dituzte. Horregatik, ikasle asko Euskal Herrian gelditzen dira. Doazenek, ordea, gozatu ederra hartzen dute. *Mahatsorriok*, adibidez. Zuriñe, Alain eta Naiarak. Hirurek Santutxu dute jaioleku. Bilbo. Denek ere ikasturtea sorterritik haratago osatuko dute. Estranjerian direla mintzatu zaizkigu bizi duten aldiko komeziek.

### Suedia, ostera ere

Suedian eroso da Zuriñe. Beharko. 2001-02ko ikasturtean Karlstad-en Erasmusen jardun zuen -60.000 biztanleko hirian-. Gero Euskal Herrira itzuli zen, eta Ikus-entzunezko komunikazioa Leioan burutu. Santutxuarrak, ordea, laster sumatu zuen iparraldera bueltatzeko irrika. Irailetik ostera ere Suedian dabil, Kazetaritza digitaleko graduondoko ikastaroa egiten. Orain Stockholmen. Mutil-laguna bertokoa dauka, eta herri tipiek aspertzen dute. Hiriburua nahiago.

Lehen-lehenik Erasmus sasoiko gomutape-nez hitz egin digu. "Suedian antzeman nuen burujabetza zertan zetzan, independentziaren alderik atseginenak zein ziren. Aita-amen magaletik urrun, ederra da ikasle bizitza. Zenbait enkargu berriri heldu behar diozu;



Erasmus ikasturtea agurtzeko sasoian antolatu zuten jaietako batean.

aske zara une oro gurago duzuna egiteko". Karlstaden urtebeteko bakantzak gozatu zituen.

Ikasle egoitza ondo hornitu batean bizi zen Zuriñe. Hirian ehun lagun inguru ziharduten Erasmus programa zertzen. "Ikaragarriko koadrila sortu genuen. Gehienon eskolak samurrak ziren, oso. Unibertsitatera astean hirutan gindoazen. Hala, bidaiatu, jairik jai ibili eta atsedean hartu asko egin genuen. Eta ingelesa ikasi, Suediara biltzeko zio premiazkoena. Karlstaden ume muki-tsuenek Shakespearearen hizkuntza ondo zekiten. Batere arazorik ez nuen izan ingelesez hizketan trebatzeko".

Bertoko lagunekin harreman oparoak atxiki zituzten Zuriñek. "Suediakoa gizarte irekia da: zintzoa, abegitsua, tolerantia... Berehala gonbidatzen zaituzte eurenera. Etxean bezala sentiarazten zaituzte. Karlstaden, gainera, Eramuseko lagunok estimu handikoak dira. Atzerriko ikasleen paradisu da. Hiri unibertsitario peto-petoa". Harगतिक edo, 2001 urte hondarrean Eskandinaviara itzuli zen mahatsorria. Stockholmgoko Unibertsitatearekin kontaktua hasi eta graduondoko ikastaroa egiteko lekua lortu zuen. "Urte honetan patxada handiagoz nabil. Beste begi batzuekin dakusat ikasle



“Fadder”-a jagole. Karlstadera heldu eta berehala hango ikasle baten laguntza jaso ohi dute Erasmuseko ikasleek. Horiek arduratzen dira atzerritarrei lana samurtzeaz. Herrialdeko ohiturak azaltzen dizkiete, hirian gustura egoteko premiazkoak. Argazkion, Lisa (*fadder*-a) eta Zuriñe ageri dira.

bizitza. Sasoi batez beharrean jardun dut, mantenua ordaintzeko. orain ere ikasle egoitza batean ari naiz, mila kideko bizitoki itzelkoan. Haatik, parranda gutxiagotan egiten dut. Txintxoago bihurtu naiz”.

Azkenik, Suedian ikasle jarduteko oztopok zehaztu ditu Zuriñek. Azaldu du diru premia dela traba garrantzizkoena. “EHUren babes ekonomikoa nimiñoa da. Herrialdeon bizitzea, aldiz, sano garestia: garagardo zatar batek sei euro balio du, okela urrea balitz bezala saltzen dute...”. Halaber, tristuraz esan du Bilboko lagun taldearen eta sendiaren falta sumatzen duela, asko. Eta *Mahatse-rriko* giro euskalduna.

### Italian sortzaile

Alain lehen ere ibilia zen atzerrira; Irlanda, Holanda, Erresuma Batua eta Ameriketako Estatu Batuak bizi-bizi oroitzen zituen. Orain turista, gero ikasle, ondotik behargin... Egonaldi laburrak beti. Londresen, bada, neskato txit jatorra ezagutu zuen. Elkarri promestu zioten batak bestearen hizkuntza ikasiko zuela. Agnesek, euskara. Alaine, italiara. Joanak joan, iraileko atzenetan batu zen Milanera, gaztaroko agintza betetzeko edo. Baina Arte Ederretan sakonago murgiltzeko ere bai. Harrezkero, hamaika pasadizo bitxi gertatu zaizkio ikasle bilbotarrari.

“Laugarren hizkuntza ikasi gura nuen. Euskara, gaztelania, ingelesa eta urtebetean menderatzeko hizkuntza. Italiara, oinarri barik ere, azkar ikas daiteke-elako”, esan du EHUko kideak. Gainera, arteari lotutako santutegi oparoenak bertan daude. Sortzaile gisara jarduteko leku txukunena hauxe zela deliberatu nuen. Finean, lagunari hitzemandakoa aitzakia legez baliatu dut”.

Ikastegira gutxitan azaldu da Alain, utzikeriak bainoago, eskola sistemaka eraginda. Ikasturte osatzeko 900 eskola-ordura joatea galdegin zioten. Edo horien baliokide, hiru proiektu diseinatzeke –horrenbeste artelan pintatzeko, alegia–. Agindutakoa aise bete du, azterketa praktikoa denak gaintu ditu: “Etxean behar egin, margotu, eta artelanak maisu-maistrei aurkeztea izan dut hileotako lana”. Aste Santutik aitzina propio pinturaz gozatzeko doa unibertsitatara: “Nire kasa irakaspen baliagarri jantzeko modu aparta”. Ildo honetan, gaurdaino sortutakoei probetxu polita atera die

Alainek. Milanen erakusketa bi paratu ditu. Bata, eskolako ikaskideekin batera. Bestea, Italiako izen handiko artistekin elkarlanean. Koadro pare bat saldu du, apika gaueko ordu txikienetan hasitako margoak. Izan ere, inspirazio iturri ditu eguneko memento arraroenak: “Maiz lagunartean edaten gaudela pintatzen dugu, edo sekulako parranda egin ostean”.

Kontuak kontu, Italian aldrebeskeria dezenteri aurre egin die Alaine. Oren gainetik, pisua aurkitzeko zailtasunak nozitu ditu. Berriki Unibertsitate legea lehengoratu dute; ikasketa ia denak urtebete berandutu. Hala, mordoxka bat ikasle pilatu dira Milanen. Baina hirian ez dago alokatzeko egoitza nahikoa, eta santutxuarrak luzaz jardun du etxerik etxe. “Lauzpabost egoitzatan ibili naiz. Horieta gehienetik nagusiak bota gintuen. Ioiz lagunentzako etxeetako sukaldan lo egin dut. Pisukideak, bestalde, arabiarak, afrikarrak, italiarrak eta Bilboko espainolak izan ditut. Orotariko jendea ezagutu dut”.

Buhame bizitza Alainena. Eta Milanen bidaide aukeratu dituen italiarrena. Lantzean behin lotzen da Erasmusekoekin. Ia gehienetan, bertako lagunekin. “Naturalagoa zait italiarrekin ibiltzea: ikasi, tragoak hartu... Eta bidaiatu. Herrialdeko txokorik politenak erakutsi dizkidate”.



Gosaria metroan. Alainek (ezkerrean) eta Milango lagunek hiria zeharkatzen duen metroan *performance*-a egin zuten. Trenean sartu, mahaia prestatu eta gosari ederra hartu zuten. Metroko jendea, noski, aho bete hortz.

Ondo bidean, atzean utzitako batzuen mira du Alainek: “Koadrila, bertsoak, Santo Tomaseko ospakizunak eta Santa Ageda bezpera”.

### New York, New York

Karriketan han-hemenka barreiaturiko gozoki dendak, poteoko tabernetako kalimotxoa, hirian harat-honat ibiltzeko lur azpiko trenea, jendearen zarata eta adeitasuna... halakoen gabezia sumatu du Naiarak. Gainera, “dixosozko sukar abertzaleak” enbarazu egiten dio. “Bertakoek uste dute inbidiak bultzatuta egin zituztela irailaren 11ko erasoak. Bortizkeria ekintza salagarriak, bestalde”, deitoratu du. Abuztuan igaro zuen Ozeano Atlantikoa, New Yorkeko estatuko Utica hiria jopuntu. Harrezkero Syracuse Unibertsitatean dihardu Enpresen Kudeaketa lizenziatura bukatzen.

Ameriketako Estatu Batuetan ikasle saiatua izanagatik dezente urratu ditu gurasoen patrikak. Naiara ez da Erasmus programako kidea. Bizkaian, Negurin kokatutako Syracuse Unibertsitateko delegazio batean egin zituen karrerako lehenengo hiru kurtsoak. Ikasturteon, berriz, Erresuma Batuan edo AEBetara joatea nahitaezkoa zuen. Aproposena iritzi zion itsaso handiaz bestaldera joateari. Ez, baina, musu truke. Eskola pribatua da eta seihileko bakoitzeko 10.000 dolar gastatu ditu –ia bi milioi pezeta–. “Egoitza eta man-

tenua ere ordaindu behar ditut, ezelango diru laguntzarik ez dut jaso... Egin kontu! Ezkerrak uda osoa lanean ibili eta diru polita aurreztu nuela”, adierazi du bilbotarrak.

Trabak traba, poz-pezik bizi da AEBetan. Laster ohitu da bazterrotako martxara. “Goizez eskolan jardun, bazkaldu, siesta egin, eta bueltan eskolara abiatu. Gaua dut lasaitzeko garaia: bapo afaldu ondotik telebista aurrean jartzen naiz. Pisukideekin garagardo pare bat hartu eta eguneko gorabehe-

rez trukutzen gara... Mementook bermatzen dute hurrengo egunean indar osoz joatea eskolara” esan du Naiarak.

AEBetan dela, biziki harritu dute ermandadeetan sartzeko hauta-proben gogortasuna –eskarmentu handieneko ikasleek hasiberriei pairarazitakoak–, eta eskolan hedatu diren sentimendu abertzale bortitzak –irailaren 11ko erasoak aztertzeko pantaila erraldoiak apailatu zituzten–. Areago oraindik: aho batez berretsi du filmetakoak bezalako unibertsitateak direla: “Animatzaile ponpo-xak, futbol amerikarreko jokalaria guztiahaldunak eta AEBetako banderak dira eskolako miretsienak”.

Ehunka dira munduan barreiatutako euskal unibertsitarioak. Kultura aniztasuna bizi, gaitasun linguistikoak garatu, curriculumajantzi, ikaragarritzko parrandaz gozatu... horiexek atzerria helduleku duten ikasleen erronkak.

New Yorkeko Estatuko Uticara batu da Naiara. Syracuse Unibertsitateko kidea alokatutako pisu batean bizi da, hiru lagunekin batera.



	Ikastetxeak eta ikasketak: errezak/zailak...? Garestia/merkeak?	Gizartea: irekia/ itxia? Hizkuntza: ...	Bizimaila: garestia/ merkea?	Parrandak...	Zeren falta sumatzen duten
ZURIÑE					
ALAIN					
NAIARA					

- Azkenik eman ikaskideei zuk jasotako informazioa eta alderatu egindako aurreikuspenekin.

## 2. HAIZEAK ERAMAN ZUENA

Bertatik Bertara saioko ondorengo erreportajeak Gipuzkoako Legazpi herrian antolatutako erakusketa baten berri dakarkigu. Erakusketa horretan Legazpin 50eko eta 60ko hamarkadetan nolako giroa zen eza-gutuko dugu garai hartako hainbat gauzaren, argazki-  
ren eta agiriren bidez.



### 1

- Erreportajea ikusi aurretik, zeure herrian garai hartako giroa deskribatuko duzu taulako lehenengo zutabean, garai hura bizi izandako norbaiti galdetuz. Agian, zu zeu ere garai hura bizi izandakoa izango zara: kasu horretan, zeure oroitzapenak azaldu. Ikusi ondoren, bigarren zutabea beteko duzu ikaskideen laguntzaz.

	Zeure herriko giroa	Legazpikoa
<b>Etorkinak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nondik etorri ziren etorkinak?</li> <li>• Zein herritakoak ziren? Non jarri ziren bizitzen?</li> </ul>		
<b>Labaderoa</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nora joaten zen jendea arropa garbitzera?</li> </ul>		
<b>Lan astea</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbat lanegun izaten ziren astean?</li> </ul>		
<b>Taberna giroa</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nolakoa zen orduko ardoa? Sifoirik botatzen al zitzaion?</li> </ul>		
<b>Goxoki denda</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Non erosten zituzten umeek goxokiak? Zure herriko goxoki saltzailearen izena gogoan al duzu?</li> </ul>		
<b>Eskola</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nolakoa izaten zen eskola? Arbela, idazteko tresnak, mahaia...?</li> <li>• Eskolako zigorrak gogoan al dituzu?</li> </ul>		
<b>Abestiak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Garai hartako abestirik bai gogoan?</li> </ul>		
<b>Zinea</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nolako pelikulak botatzen zituzten zineman?</li> <li>• Zenbat balio zuen sarrerak?</li> <li>• Puri-purian zegoen aktoreren baten izenik gogoan al duzu?</li> </ul>		

### 3. ATZERAKO KONTAKETA

Elhuyar aldizkariko artikulua<sup>6</sup> bateko pasarte batzuk irakurtzea proposatzen dizugu. Bertan demografi ezta-darekiko beldurra lekuz kanpoko delako esaten zaigu.

- Irakurri artikulua, idatzi taulan eskatzen diren datuak eta aldera itzazu Demografia izeneko atazan jasotako informazioarekin.

## ATZERAKO KONTAKETA

Adituek esaten dutenez, demografi ezta-darekiko beldurra lekuz kanpoko da. Datoren mende, jaiotza-tasa txikiez arduratuko gara, ez handiez.

Ikuspuntu honen arabera, populazioaren maximoa XXI. mende gertatuko da, eta gero jaisten hasiko da. Beraz, oraingo gazteei ume gutxiago edukitzeko aholkua ematen zaie arren, beren bilobek aurrera jarraitzeko eta ugaritzeko bultzada izan dezakete.

"Azken bost urteotan emankortasunak munduko leku gehienetan galdu du balioa" dio heretikoetako batek, Wolfgang Lutz, populazioari buruzko ikerketaren buruak (Austria) Laxenburg-eko Sistema Aplikatuaren Analisirako Nazioarteko Institutuan. "Aldaketa guztiek populazioaren joera murriztaileta jotzen dute".

Azken joera guztietan populazioaren hazkuntza eten egin da eta beste aldera joko du, gutxi gorabehera, hemendik 70 urteko epean. Joera hori goranzkoa izan da Europako populazioaren herena garbitu zuen XIV. mendeko izurritetik aurrera".

Demografoek beherakada iragarri zuten. Baina iragarri zutena baino azkarrago eta orokorrago gertatzen ari da. Azken hiru urteetan, Nazio Batuen estatistikarietok etorkizuneko populazioaren proiektzioak bitan txikiagotu dituzte. Azkeneko aldian, joan den urtearen bukaera aldera, "6.000 milioien eguna" bi aldiz bota dute lau hila-bete atzera eta 2050. urteko populazioaz egiten den iragarpena 500 milioi lagun



gutxiagokoa da, 9.400 milioitik 8.900 milioira jaitsiko delarik.

Aldaketa horien arrazoi nagusia emankortasun-tasa jaitea da, garatzen ari diren lurraldeetan, batez ere. Afrika eta Asian ehunka milioi pertsonak, familiako lagun-kopurua urrituta, iragarpenen aurka jo dute.

Bangladesh egoera latzean egon zen garai batean. Baina han hamarkada batean jaiotza tasa 6,2 ume emakumeko baliotik 3,4 balioraino jaitsi da. Nahiz eta lurralde pobreak alfabetatu gabekoa izan, jaitsiera hori antisorgailuei esker lortu du. Afrikako

<sup>6</sup>Atzerako kontaketa. ELHUYAR, 2000.eko urtarrila



*Afrikako zenbait lurraldetan ere, jaiotza-tasak oraindik oso altuak badira ere, azkar jaisten ari dira antisorgailuak maizago erabiltzen diren heinean.*

zenbait lurraldetan ere, jaiotza-tasak oraindik oso altuak badira ere, azkar jaisten ari dira antisorgailuak maizago erabiltzen diren heinean.

Populazio hazkuntzak bere alderdi iluna badu. Afrikan Saharaz hegoaldeko herrietako heriotza tasak handiagotzen ari dira VIH birusaren eraginez. Lurralde batzuetan populazio helduaren laurdena kutsatuta dago.

Lester Brown Washington Dcko Worldwatch Institutuko zuzendariak honakoa dio: "Mundua bi zatitan banaturik dago:

bata, populazioaren hazkuntza emankortasuna jaistearekin batera murrizten doana eta, bestea, hazkuntza heriotza-tasa handitzearekin batera gelditzen ari dena".

Hogeigarren mendeak demografi eztanda eman digu. Hogeita batgarrenak kontrako prozesuaren hasiera ikus lezakeela ematen du. Aldaketa demografiko horien epe laburreko ondorioa populazio adinduna ugaltzea izango da. Txina, 1980. Urtean hartu zuen ume bakarreko familia-politikarekin, lehenengoa da populazioaren adintze-prozesuan. Oraingo joeren arabera, 2030. Urtearen inguruan munduaren historiako populaziorik zaharrena izango du. 2050aren inguruan, herrialdeak 75 urtetik gorako 150 milioi lagun izango ditu.

Jadanik Europan bost lagunetik bat 60 urtetik gorakoa da. Baina populazioa oraindik gehiago zaharkituko da. Hurrengo mendearen bukaeran Europako biztanleriaren erdia 60 urtetik gorakoa izan daitekeela dio Lutz-ek. Ondorio ekonomikoak handiagoak izango dira.



*Azken azterketek populazioaren urritzearen ideia sustatzen dute.*



### 4. EGIN NAHI EZ DITUGUN LANAK

Xipri Arbelbidek HABE aldizkarian idatzitako Etorkin eta arrazismo Frantzian artikulua ren pasarte batean honela dio:



“Zergatik dira beltzak ikusten Parisko metroaren eskainierak garbitzen edo arabeak etxegintzan? Frantsesek ez dituztelako lan horiek egin nahi! Zergatik ziren euskaldunak artzain bezala onartuak Ameriketako Estatu Batuetan, beste arrotzik sar ez zitekeelarik? Amerikano ale batek ez zuelako artzain joan nahi Nevadako mendietara! Euskaldunen semeek ez baitute gehiago beren aitek pairatua jaso nahi, Perutik joaten dira oraingo artzainak!

1

- Zein dira zure ustez guk nahi ez eta etorkinek egin ohi dituzten lanak? Irakurri ondorengo lanbide zerrenda eta markatu etorkinek egin ohi dituzten lanbideak eta normalean egin ohi ez dituztenak.





Zaharren zaintzaile  
Inude  
Etxeko lanak  
Kale garbitzaile  
Meatzari  
Aldikako nekazari  
Abere-hiltzaile  
Kamioilari  
Artzain  
Butano-banatzaile  
Lorazain  
Bulegari  
Dendari  
Funtzionario  
Apaiz  
Txofer  
Kirolari

Eraikuntzako langile  
Sukaldari  
Sukaldeko pintxe  
Arrantzale  
Basomutil  
Irakasle  
Mediku  
Enpresari  
Tabernari  
Haginlari  
Ingeniari  
Kazetari  
Arkitekto  
Ertzain  
Bankuko enplegatu



- Elkartu ikaskideekin eta alderatu erantzunak. Ondoren, komenta itzazue honako galderak:
  - Zure ustez, etorkinek lanbide horiek aukeratu egiten al dituzte?
  - Nolako prestakuntza edo heziketa izaten dute hona iristen diren etorkinek?
- Irakurri Agustin Unzurrunzagag Egunkarian idatzitako artikulua pasarte hauek eta alderatu zuen erantzunekin.

"Lehentasun nazionalaren printzipioaren arabera, nazionalitate espainola duten langileek libre uzten dituzten lanbideetan jarduteko eskubidea du soilik lehenengo lan baimenarekin. Horretarako, lan baimena eskatu aurretik, INEMek agiri bat eman behar dio lana eskaintzen dion enpresaburuari, lanbide hori betetzeko nazionalitate espainola duen langilerik ez dagoela egiaztatuz. Bestalde, lehenengo lan baimena geografikoki eta profesionalki mugatua dago. Gipuzkoan lortzen bada, Gipuzkoan aritzeko da, ez beste inon. Nekazaritzarako baldin bada, ezingo du ostalaritzara aldatu, adibidez.

Praktikan, batez ere hiru lanbideren bitartez sartzen dira langile etorkinak lan merkatu legalean, lanerako baimenarekin: etxeko lanak, nekazaritza eta arrantza. Sektore horietaz gain, lanbide berezietan, arriskutsuetan edo oso nekagarrietan: putzugile, adibidez. Ikusten dugunez, soldata kaskarrenak, lanordu luzeenak eta lan baldintza kaskarrak dituzten lanbideetara bultzatzen dituzte.

Etorkinek ez dituzte lanbide horiek aukeratzen. Behartu egiten dituzte lanbide horietan aritzera, denbora luze batez. Ez euren gustukoak direlako edo euren heziketa maila eta prestakuntzarekin bat datozelako, ez. Inkesta guztiek agertzen dute etorkinek, bertakoekin konparatuta, heziketa maila altuagoa dutela, eta ez da harrizkoa. Migrazio guztiek erakusten duten bezala, ez dira txiroenak eta egoera kaskarrenean daudenak jaioterritik ateratzen. Beraz, langile etorkinak, euren lan egoera normalizatzeko, denbora luzez lan kaskarretan jardutera behartuta daude, esplotazio maila handia pairatzen dutelarik.

Lanari dagokionez, atzerritarren legedia lehentasun nazionalaren printzipioan oinarritzen da. Printzipio horrek, bai Gobernuaren esanetan eta bai, tamalez, jende askoren sinesmenetan, bertako langileak langile etorkinen kompetentziatik babesten omen ditu. Errealitatean, printzipio horrek langile etorkinen lan baldintza guztiak kaskartzen ditu, askotan ezkutuko ekonomian murgiltzera behartuz. Atzerritarren legedia da langile klandestinoak sortzen duena, lan merkatuan egoera horretan sartzera behartzen delarik. Arazoa da sektore ekonomiko batzuetan langile etorkin mota hori dela funtzionala, hala nola etxeko lanetan, edo nekazaritza industrialean, edo eraikuntzako hainbat alorretan. Gobernua bera da langile klandestinoak egiten duena. Aurtengo kupoarekin zer gertatzen ari den ikusi besterik ez dago horretaz jabetzeko. Gobernua bera izan da milaka langile etorkin, bertan daudenak, ezkutuko ekonomiara bidali dituenak, aurtengo urtarrilaren 14az geroztik lan baimenak eta erresidentzia baimenak eskatzeko erregimen orokorra blokeatuz."

# OHARRAK

A large rectangular area with a light beige background, containing 25 horizontal dotted lines for writing. The lines are evenly spaced and extend across the width of the page, providing a guide for text entry.



# HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del



Deba Hiriko  
Udala



Mutrikuko  
Udala



Elgoibarko  
Udala